

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA
JUSTIZIAN



2022

Izenburua: «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa
Justiziaren eremuan»

Argitaratzailea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea 36. 01005-Vitora-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2022ko ekainean eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	6
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN.....	6
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	22
3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA	35
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	40
2.5. BERDINTASUN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK	48
3. LEGEDIA	51
4. DATU-ITURRIAK.....	53
5. ERREFERENTZIA- AGIRIAK	55

1. TESTUINGURUA

«Justizia» kontzeptua oso termino zabala da, hainbat adiera ez ezik, askotariko arloak ere barnean hartzen dituen, moral, filosofikoa, etikoa eta juridikoa, esaterako.

Gizarte batek justizia izan behar du oinarri, justiziatzat hartuta Estatuaren ideia oinarritzen den balio multzoa, zuzentasuna eta berdintasuna izanik aipatu ordena sozialaren funtsezko oinarriak.

Beste alde batetik, eta aztergai dugun ikuspuntu juridikotik, zuzenbidean gauzatzen da justizia, gizarte batean bizikidetzari eta ordenari eusten dien arau multzo bezala ulertuta.

Horrenbestez, zuzenbideak justizia badu oinarri eta hori, aldi berean, berdintasunean oinarritzen bada bidezko estatu bat eraikitzeko, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak emakumeek, gizartearen erdia direnez gero, berdintasun parte hartu beharko luketela eremu horretan, bai modu aktiboan arauen legegile gisa, bai modu pasiboan, horien aplikazioaren hartzailer bezala.

Hala ere, beste ezagutza-esparru batzuk bezalaxe, zuzenbidea ere gizonen eraikia da, eta ez du emakumea aintzat hartzen araudia sortzeko prozesuan. Hartara, ikusezin bihurtzen ditu emakumeak, bai eta bazter utzi ere beren eskubideak. Hori dela bide, beharrezkoa eta bidezkoa ematen du justiziaren eremuan genero-ikuspegia txertatzeak.

Emakume batek irudikatzen du justizia, eta hala ere, arauak ez dira bidezkoa den eran aplikatzen, hots, gizaki bakoitzaren banakotasunak ulertuz eta onartuz. Aitzitik, ikuspuntu nagusiki androzentrikotik aplikatzen da justizia, non gizonak jarraitzen baitu izaten gauza guztien erdigune eta neurri.

Beraz, genero-analisi batek aukera emango du frogatzeko justizia-administrazioan, beste sektore askotan gertatzen den legez, desparekotasun nabaria dagoela, baita desoreka handia ere botere-harremanetan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko lege-manuen aplikazioa ez dela beti eraginkorra, ezta bidezkoa eta orekatua ere.

Analisi mota horri zehatz-mehatz heltzeko, batetik, emakumeek parte hartzen duten administrazioko arlo ezberdinei erreparatu behar zaie aurrena, lanbideak aztertze aldera (besteak beste, epailetza, abokatutza, fiskaltza nahiz erakunde judizialean diharduten ezagutza-arlo desberdinetako espezialistak), eta, bestetik, epaitegi eta auzitegietan sistemaren erabiltzaile gisa auzitan ibiltzen diren pertsonen, eskatzaile zein salatzaile gisa. Azkenik, ordenamendu juridikoa hausten duten emakumeen egoera aztertu beharra dago.

Hala, emakumeek eta gizonen sistema judizialean duten presentzia eta partaidetza desberdina ikusiko da, besteak beste, zuzenbideari loturiko lanbideetan, auzitan jarduteko unean emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunetan, erabakiak hartzeko organoetan jazozen den

bereizketa bertikalean, baliabideak (doako justizia, adibidez) eskuratzeko aukera ezberdinetan eta horrek guztiak emakume eta gizonengan dituen ondorio desberdinetan.

Garrantzitsua da, halaber, izaera sozialagoa duten beste alderdi batzuei buruzko genero-analisia egitea, zeinek guztiz baldintzatzen baitituzte emakumeek eta gizonek eskuragai dauden baliabideak lortzeko aukerak. Prestakuntza- edo kultura-mailari dagokionez, adibidez, prestakuntza txikiagoa jasotzeak ziurtasun-gabezia handiagoa eragin lezake sistema judizialari aurre egiteko unean. Autonomia eta independentzia ekonomikoa direla eta, bestalde, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenek zailtasunak izan litzakete justizia-administrazioa erabiltzeko, nahiz eta, berez, herritar guztientzako eskubidea izan (doako justizia izateko onura); hala, baliabide gutxiago dituzten pertsonak gutxiago ibiliko dira auzitan eta, hartara, aukera gutxiago izango dituzte beren eskubideen alde egiteko.

Amaitzeko, etxeko lanak eta zainketei eta estimuari loturikoak desberdin banatuta egoteak, enplegua lortzeko aukerak ez ezik, justizia-administrazioaren eremuan diharduten profesionalen garapena eta igoera ere murriztu ditzake. Horren gaineko hausnarketa ere jaso da.

2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Justizia sektore feminizatua da oro har, batez ere lehen, bigarren eta hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketetan, non emakumeen presentzia oso handia baita. Lege-zientzien goi-mailako ikasketak amaitutakoan, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua da sistema judizialaren hierarkiaren behe-mailako organo jurisdikzionaletan eta lanbide jakin batzuetan, irakaskuntzan, esaterako. Nolanahi ere, beste lanbide batzuetan (notariorian edo prokuradoretzan, adibidez) gizonak dira gehiengoak.

Hezkuntzan, osasunean edo zainketekin zerikusia duten sektoreetan gertatzen den legez, justizia-administrazioan ere bereizketa handia nabaritu daiteke, batez ere bertikala; izan ere, sektorean emakume asko egon arren, erantzukizun txikiagoko lanpostuetan biltzen dira batik bat, eta gizonak betetzen dituzte erabakiak hartzeko postuak. Hurrengo orrialde hauetan ikusiko den bezala, bereizketa hori oso nabarmena da Estatu maila handieneko organo judizialean, eta lausoagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE).

- Baieztapenok hobeto ulertzeko, honako elementu hauei heldu behar zaie: **Presentzia sektore juridikoari loturiko ikasketetan (ikasleak):**

EAEan, gazteek prestakuntza-maila handiak dituzte, Estatu osoaren beraren eta Europako ehunekoaren gainetik ere.

Eustaten arabera, zehazki, EAEan bigarren mailako ikasketen gutxieneko prestakuntza zuten 20-24 urteko emakumeen tasa % 86,6koa zen 2014an, eta bost urte geroago, alegia, 2019an¹, % 96koa. Espainian, oro har, tasa hori % 79,7koa zen, eta 28en EBn % 86,4koa. Ehuneko horiek zertxobait txikiagoak dira gizonen kasuan (% 94,5, % 68,5 eta % 81,4, hurrenez hurren), batez ere Estatu mailan.

Iturri beraren arabera, goi-mailako ikasketei dagokienez, 68.237 ikasle matrikulatu ziren EAEko unibertsitate-ikasketetan 2019-2020 ikasturtean (une honetan horiek dira jasotako azken estatistikak), hau da, EAEko zentroetan eta hezkuntza-maila guztietan matrikulatutako ikasle guztien % 14,91. Unibertsitate-ikasketak dituzten 68.237 pertsona horietatik, % 54,02 emakumeak dira eta % 45,98 gizonak.

¹ 27en EB, Espainia eta EAE alderatzeko eskuragai dagoen azken datua.

Duela 5 urtera arte, matrikulatutako emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa zen beti, unibertsitate-ikasketak edozein motatakoak zirela ere², baina 2019-2020 ikasturterako datuek adierazten dutenez, graduako eta masterreko unibertsitate-ikasketen kasuan soilik mantentzen da kopuru-nagusitasuna, baina doktoretza duten emakumeen kopuruan alderantzikatzen has daiteke (emakumeak % 49,59 dira). Egoera antzekoa da lurralde historiko guztietan, hau da, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Espanian oro har, eta 2020-2021 ikasturteko Unibertsitate Ministerioaren datuen arabera, gizon baino emakume gehiago matrikulatu ziren lehen eta bigarren zikloko ikasketetan, master ofizialetan eta doktorego-ikasketetan.

Are gehiago zehazteko, EAEko unibertsitateetan 2020an 11.094 **ikasle berri** matrikulatu ziren, eta 6.606 ziren emakumeak, hots, kopuru osoaren % 55,12. Zehazki, Zuzenbideko karreran 418 ikasle berri matrikulatu ziren, eta horietatik % 67 emakumeak ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateko ikasleen artean, 2019-2020 ikasturterako ikasketa-adar nagusien arabera, emakumeen presentzia nabarmen handiagoa da osasun-zientzietan, arteetan eta giza zientzietan, Gizarte eta Lege Zientzietan eta zientzietan (hurrenkera horretan), eta emakumeen guztizkoaren % 27,71k soilik aukeratzen du ingeniariaritz eta arkitektura adarra.

1. Taula: EAEko unibertsitateetan matrikulatutako emakumeak 2019-2020 ikasturtea

EAEko unibertsitateetan (publikoak zein pribatuak) matrikulatutako ikasleak. 2019/2020 ikasturtea	Guztira	Emakumeak	Emakumeen %
Guztira	68.237	36.860	% 54,02
Arteak eta Giza Zientziak	6.189	3.883	% 62,74
Zientziak	4.312	2.185	% 50,67
Osasun Zientziak	8969	6.892	% 76,84
Gizarte eta Lege Zientziak	33005	19.533	% 59,18
Ingeniaritza eta Arkitektura	15.762	4.367	% 27,71

Geuk egina, Eustaten Irakaskuntzaren Estatistikak oinarri hartuta (2022)

Gizarte eta Lege Zientzien adarrean soilik, 7.141 pertsonak amaitu zituzten unibertsitate-ikasketak 2020an, eta horietatik 4.470 emakumeak ziren (% 62,60).

² Espainia Goi Hezkuntzako Europar Eremura atxiki ondoren (Unibertsitate Ikasketa Ofizialei buruzko Antolamenduaren Errege Dekretua, Ministro Kontseiluarena, 2007ko urriaren 26koa), hauek dira baliokidetzak:

Lehen zikloko ikasketak dira horiek amaitutakoan diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko tituluak eskuratzeko eskubidea ematen dutenak. Egungo graduako tituluaren baliokide dira.

Bigarren zikloko ikasketak dira horiek amaitutakoan lizentziadun, ingeniari edo arkitekto tituluak eskuratzeko eskubidea ematen dutenak. Master tituluaren baliokide dira.

Hirugarren zikloko ikasketak dira doktoretza-ikasketak.

Pixka bat gehiago sakonduz, egiaztatu da amaitutako unibertsitate-ikasketei dagokienez, emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa dela maila guztietan, gainditutako tesien mailan izan ezik.

2. Taula: EAEko ikasketak amaituta dituzten emakume ikasleak.

EAEn ikasketak amaituta dituzten ikasleak	Guztira		Graduak		Masterrak		Gainditutako tesiak	
	Guztira	E %	Guztira	E %	Guztira	E %	Guztira	E %
Guztira	14.002	% 56,78	10.146	% 58,16	3.421	% 53,81	435	% 48,05
Gizarte eta Lege Zientziak	7.141	% 62,60	5.402	% 62,81	1.650	% 63,03	89	% 41,57

Geuk egina, Eustaten Irakaskuntzaren Estatistikak oinarri hartuta (2022)

Presentzia sektore juridikoari loturiko ikasketetan (irakasleak):

Unibertsitateko ikasleei buruzko analisiak aditzera ematen du emakumezko ikasle gehiago daudela, batez ere lege-zientzien alorrean. Irakasleei dagokienez, alderantzikatu egiten dira zifra horiek; izan ere, emakumezko baino gizonazko irakasle gehiago daude. 2019-2020 ikasturteko EAEko unibertsitateetako irakasleen inguruko taula honetan ikus daiteke hori, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera sailkatuta.

3. Taula: Emakumezko eta gizonazko irakasleen presentzia EAEko unibertsitateetan

Emakumezko eta gizonazko irakasleen presentzia EAEko unibertsitateetan								
	Guztira		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
Guztira	5.957		865		3.162		1.930	
Unibertsitate-ikasketetako irakasleak (EAE)	E	G	E	G	E	G	E	G
	46,57	%53,43	%7,08	%7,44	%24,71	%28,37	%14,77	%17,63

Geuk egina, Eustaten Irakaskuntzaren Estatistikak oinarri hartuta (2022)

Irakasleen lanbide-kategoria dela eta, bereizketa bertikala ikus daiteke: emakumeak behe-kategoriako postuetan biltzen dira, eta gizonak, ordea, katedradun edo irakasle emeritu ere izatera heltzen dira ehuneko handiagoan. Honako taula honetan 2019-2020 ikasturteko EAEko unibertsitateetako irakasleen banaketa ageri da, lanbide-kategoriaren eta sexuaren arabera sailkatuta.

4. Taula: Emakumeen eta gizonen ehunekoa EAEko unibertsitateetan, lanbide-kategorien arabera. 2019-2020 ikasturtea

Emakumeen eta gizonen ehunekoa EAEko unibertsitateetan, lanbide-kategorien arabera, 2019-2020 ikasturtea			
	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Irakasleak	6.047	% 46,30	% 53,70
Albokoa	5	% 20,00	% 80,00
Elkartua	776	% 44,07	% 55,93
Laguntzailea	569	% 56,06	% 43,94
Katedraduna/Irakasle arrunta	442	% 28,05	% 71,95
Kolaboratzailea	503	% 41,55	% 58,45
Kontrataduna	947	% 50,37	% 49,63
Emeritua	20	% 15,00	% 85,00
Irakasle aditua	39	% 41,03	% 58,97
Irakasle titularra - Agregatua	1.645	% 45,71	% 54,29
Ordezkoa	691	% 58,61	% 41,39
Bisitaria	72	% 29,17	% 70,83
Bestelako langileak	338	% 38,76	% 61,24
Administrazio eta zerbitzuetako langileak	2.802	% 65,77	% 34,23

Geuk egina, Eustaten Estatistikak oinarri hartuta (2022)

Xeheago aztertuta EAEko unibertsitateetan lan egiten duten administrazio eta zerbitzuetako langileen kategoriarik buruzko aurreko taula, argi eta garbi ikusten da lanbide-bereizketa dagoela kategoriatan, emakumeen proportzioa handiagoa delako (% 65,77) gizonen ehunekoarekin alderatuta (% 34).

Irakasleei dagokienez, unibertsitateko lanbide-bereizketari heltzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko sail ezberdinetako langile-banaketa aztertuko da, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetan³. Zuzendaritzak, idazkaritza akademikoak eta idazkaritza administratiboak osatzen dituzte sail gehienak. Hala, gaur egun, saileko zuzendaritzako 10 postutatik, 6 gizonek betetzen dituzte, eta 4, berriz, emakumeek; aldiz, 2 gizonek eta 7 emakumek betetzen dituzte idazkaritza akademikoko postuak, eta idazkaritza administratiboan, berriz, gizon batek eta 9 emakumek. Ikusten da, beraz, gizonek maizago betetzen dituztela zuzendaritza-postuak, eta idazkaritzakoak, ostera, emakumeek, batez ere administrariak.

Orain arte, egiaztatu da unibertsitate-eremu judizialean emakumezko ikasle gehiago daudela, baina horrek ez du esan nahi emakume horiek, prestakuntza amaitu ondoren, sektoreko postu garrantzitsuak beteko dituztenik, irakasle eta ikertzaile edo kudeatzaile gisa. Horrenbestez, genero-inpaktuaren ikuspuntutik, beharrezkoa da lanbide-ibilbideak osorik aztertzea, prestakuntzako/hezkuntzako garaitik laneratu arte; horrela ulertuko ditugu laneratzean gertatzen diren genero-arrakalak, prestakuntzako etapan emakumeen ehunekoa handiagoa izanik ere.

³ Euskal Herriko Unibertsitateko webgunetik ateratako datuak: <https://www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide-fakultatea/sailak>

- Presentzia arlo juridikoari loturiko lanbideetan

Eustatek 2022ko otsailaren 22an emandako datuen arabera, EAEko Administrazioari langileen % 5,48k soilik egiten du lan justizia-administrazioan; hau da, 47.604 pertsonatik 2.611k bakarrik. Eta horietatik 2.012 dira emakumeak, (% 77) eta 599 gizonak (% 23). Emakumeak gehiengoa dira, halaber, administrazio publikoan oro har eta hezkuntza-administrazio publikoan bereziki. Ez da hala, ordea, instantzia publiko jakin batzuetan, Ertzaintzan, adibidez; izan ere, alderantzikatu egiten da proportzio hori, eta langile guztien % 14,78 baino ez dira emakumeak.

Justiziarekin zerikusia duten lanbideei dagokienez, dela arlo publikoan dela pribatuan, honako datu hauek daude:

Epailletza

1966ra arte ez zituzten emakumeak karrera judizialean onartu, eta 12 urte geroago Espainiako lehen emakume epailea sartu zen oposizio bidez. Dena den, gaur egun, Eskola Judizialek igaro diren emakumeak gizonak halako bi dira ia.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (BJKN) karrera judizialaren egiturari buruzko 2021eko txostenaren arabera, Estatu osoan 5.320 **epaile eta magistratu ari dira jardunean**. Pertsona horietatik 2.918, hots, % 54,8, emakumeak dira (49,6 urteko batez besteko adina eta 18,7 urteko batez besteko antzintasuna), eta 2.402, alegia, % 45,2, gizonezkoak (54,1 urteko batez besteko adina eta 22,6 urteko batez besteko antzintasuna). Informazio horrekin ikus daiteke emakumeak pixkanaka karrera judizialean sartzen joan direla.

Estatuko organo judizialaren arabera, taula honetan islatzen da emakumeen ehunekoa:

5. Taula: Emakumeen ehuneko Estatuko organo judizialetan

ORGANOA	Emakumeen %
Auzitegi Gorena	% 21,9
Auzitegi Nazionala	% 45,2
Instrukzioko Epaitegi Zentrala	% 20,0
Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusia	% 25,0
Justizia Auzitegi Nagusia	% 38,1
Lurralde-atxikipeneko epaileak	% 65,3
Probintzia Auzitegia	% 39,1
Zigor-arloko Epaitegia	% 65,0
Administrazioarekiko Auzien Epaitegia	% 48,0
Gizarte-arloko Epaitegia	% 57,7
Espetxe Zaintzako Epaitegia	% 56,0
Adingabekoen Epaitegia	% 64,6
Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegia	% 66,2
Erregistro Zibil eskusibo bakarra	% 65,4
Epaitegi dekanu eskusiboa	% 25,0
Merkataritza-arloko Epaitegia	% 45,7
Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia	% 73,3

Geuk egina, BJKNen karrera judizialeko txostena oinarri hartuta (2021)

Hemen ikus daitekeenez, karrera judizialaren barruan emakumeak gehiengoa dira esleitzeko zain dauden justizia-auzitegi nagusietan, behe-mailako epaitegietan, hala nola, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegietan, lan-arloko epaitegietan, zigor-arloko epaitegietan eta arlo zibileko epaitegietan, baita adingabeen epaitegietan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan eta erregistro zibiletan ere. Gizonak, bestalde, gehiengoa dira organo judizial gorenetan, hau da, Auzitegi Gorenean, Auzitegi Nazionalean, Probintzia Auzitegian, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusian eta Justizia Auzitegi Nagusian. Ordena jurisdikzionalari dagokionez, gizonak gehiengoa dira merkataritza-arloko epaitegietan eta Epaitegi Dekano Esklusiboan.

BJKNk genero-azterketa espezifikoa egin zuen, kide anitzeko organoetako kargu diskrezionalen magistratuei buruzko datuak bereizita, 2022ko otsailean. Azterketa horretan, agerian geratu zen Auzitegi Goreneko (% 22,5 emakumeak), Auzitegi Nazionalako (% 39,4 emakumeak), justizia-auzitegi nagusietako (% 39,4) eta probintzia-auzitegietako (% 41,1)⁴ saletan ez dagoela parekotasunik. Hala, organo horietan (Auzitegi Nazionalean izan ezik) emakumeen presentzia pixka bat handitu dela hautematen bada ere, desoreka oraindik oso nabarmena da.

Autonomia-erkidego gehienetan, epaile eta magistratuen % 50 baino gehiago emakumezkoak dira epaitegi eta auzitegietan. Errioxa eta Euskal Autonomia Erkidegoa dira horien guztien buru, epaile eta magistratuen % 61 baino gehiago baitira emakumeak.

⁴ Genero-berdintasunari buruzko estatistikak: [BJKN - Estatistikak \(poderjudicial.es\)](http://BJKN-Estatistikak.poderjudicial.es)

Izan ere, 226 epailek eta magistratuk (emakumezko zein gizonazko) osatzen dituzte EAEko epaitegiak eta auzitegiak, 50,6 urteko adinarekin eta 19,2 urteko antzintasunarekin batez beste. Horietatik, 139 emakumeak dira (hau da, % 61,5), eta 87, berriz, gizonak (hots, % 38,5).

Organo motaren arabera, taula honetan islatzen da EAEko emakumeen ehunekoa:

6. Taula: Emakumeen ehunekoa EAEn organo judicial motaren arabera

ORGANOA	Emakumeen %
Justizia Auzitegi Nagusia	% 30,8
Lurralde-atxikipeneko epaileak	% 57,1
Probintzia Auzitegia	% 53,4
Zigor-arloko Epaitegia	% 64,3
Administrazioarekiko Auzien Epaitegia	% 50,0
Gizarte-arloko Epaitegia	% 52,4
Espetxe Zaintzako Epaitegia	% 100
Adingabekoen Epaitegia	% 66,7
Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegia	% 81,2
Erregistro Zibil eksklusibo bakarra	% 100
Epaitegi dekanok eksklusiboa	% 0
Merkataritza-arloko Epaitegia	% 33,3
Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia	% 100

Geuk egina, BJKNen karrera judicialaren egiturari buruzko 2021eko txostenaren datuak oinarri hartuta.

Justizia Auzitegi Gorenean, merkataritza-arloko epaitegietan eta epaitegi dekanok eksklusiboan izan ezik, gainerako organoetan emakumeak dira nagusi.

Organo judicialetan emakumeak egotea lorpena da berez, baina horrekin batera, epaitegi eta auzitegietako langile guztiek genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza jaso behar dute; izan ere, zuzenbidea aplikatzeko modua munduaren ikuspegi androzentrikoak kutsa dezake, eta, beraz, partziala izan daiteke, epaitzen duenaren arabera. Justizia ematen eta aplikatzen dutenek ere «betaurreko moreak» jarri behar dituzte. Horrela bermatuko dira berdintasuna eta zuzentasuna ebazpen judicialetan.

Fiskaltza

Estatu mailan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren webgunean haren osaerari buruz jasotako datu berriek adierazten dutenez, organo hori 50 fiskalek osatzen dute. Horietatik, zuzendaria emakume bat da, hau da, Estatuko fiskal nagusia da, baina salako 11 emakume fiskal (guztizkoaren % 34,4) eta 7 emakume fiskal nagusi baino ez daude (guztizkoaren % 41,2).

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren web orrian agertzen denez (www.justizia.eus), Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiaren postua betetzen duen pertsona ere emakumea da; hiru probintzia-fiskaltzen buru, berriz, bi gizon (Araba eta Gipuzkoa) eta emakume bat (Bizkaia) dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza 74 emakumek eta 26 gizonek osatzen dute. Fiskaltza Nagusiak 3 fiskal ditu, 2 emakume eta gizon 1. Bizkaiko Probintzia Fiskaltzak 54 fiskal ditu, 41 emakume, 12 gizon eta (1 hutsik, fiskalburua). Gipuzkoako Probintzia Fiskaltzak 31 fiskal ditu, horietatik 22 emakumeak dira eta 9 gizonak; ostera, Arabako Probintzia Fiskaltzak 13 fiskal ditu: 9 emakume eta 4 gizon.

2021eko EAEko justizia-administrazioiko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko-txostenaren arabera, EAEko justizia-administrazioiko plantilla feminizatuta dago: emakumeen % 77 eta gizonen % 23.

Lanpostu bakoitzaren sexuaren araberako banaketari dagokionez, 10 lanpostutik 6 feminizatuta daude.

Maila goreneko lanpostua, hots, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen Zuzendaritza, pertsona bakarreko lanpostu bat da, eta gizon baten esku dago. Bi postuk banaketa maskulinizatua dute, lehenak maila estrategikoa du, eta bigarrenak, taktikoa (emakume 1 eta 2 gizon bi kasuetan). Auzitegiko mediku espezialisten eta izapidegileen artean, emakumeen presentzia handiagoa da plantillan duten pisua baino; auzitegiko mediku orokorren eta laguntzaileen artean, aldiz, pisu txikiagoa dute.

Plantillaren antolaketa, mailen eta lanpostuen arabera.

7. Taula: Emakumeen eta gizonen banaketa EAEko Justizia Administrazioan (2020)

	E	E (%)	G
MAILA ESTRATEGIKOA			
Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen Zuzendaritza	0	% 0	1
Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Zuzendariordetza	1	% 33	2
Maila estrategikoaren guztizko partziala	1		3
MAILA TAKTIKOA			
Auzitegiko Medikuntzako buruzagiak	1	% 33	2
Kudeaketa-arduradunak	21	% 72	8
Maila taktikoaren guztizko partziala	22		10
MAILA OPERATIBOA			
Auzitegiko mediku orokorrak	16	% 57	12
Auzitegiko mediku espezialistak	14	% 82	3
Kudeatzaileak	492	% 78	142
Izapidegileak	958	% 83	197
Laguntzaileak	326	% 66	165
Kudeatzaile prozesal eta administratiboa Bake-idazkaria	53	% 77	16
Maila operatiboaren guztizko partziala	1859		535
Guztira	1.882		548

Iturria: 2021eko EAEko justizia-administrazioiko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko-txostena. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Justizia-administrazioako emakumezko zein gizonezko letraduak (lehengo idazkari judizialak)

Justizia Administrazioako Abokatuen Elkargo Nazional Gailenak argitaratutako txostenen artean, azken «El letrado de la Administración de Justicia en cifras, 2019» txostenaren arabera, justizia-administrazioan abokatuentzako 4.209 lanpostu zeuden Espainia osoan 2018an. Plaza horien titularren sexuaren arabera banaketari dagokionez (3.796 pertsona,) % 68 emakumeak ziren eta % 32 gizonak.

EAEEn, 193 pertsona ari dira justizia-administrazioan letradu gisa lanean.

Prokuradoretza

Eskuragarri dagoen Prokuradoreen Kontseilu Nagusiaren 2020ko urteko azken memoriaren arabera, kargu horretan, emakumeen ordezkartza gero eta handiagoa da. Horrela, 2019ko abenduan, Estatu osoan 9.771 prokuradore zeuden jardunean, eta horietatik 6.547 emakumeak ziren, hau da, % 67,0.

Datu horiek EAEko errealitatera ekarrita, azpimarratu behar da memoria berak adierazten duela EAEEn prokuradore kargua duten 332 pertsona daudela erregistratuta, eta horietatik % 68 emakumeak direla. Lurralde historikoen arabera honela banatzen dira: Araban 41 elkargokide; horietatik, 22 emakumeak dira, eta 19 gizonak. Bizkaian 204 elkargokide daude; horietatik, 151 emakumeak dira, eta 53 gizonak. Eta Gipuzkoakoan 87 elkargokide daude, 58 emakume eta 29 gizon, hain zuzen ere.

Honako **8. taula** honetan, prokuradoreen elkargo ezberdinetan dauden emakumeen proportzioak adierazten dira:

EAEko prokuradoretzan jarduten duten emakumeen ehunekoa (2016 eta 2020)				
	2016, guztira	E % (2016)	2020, guztira	E % (2020)
Estatuan guztira	10.252	% 33,4	9.771	% 67
Araba	46	% 41,3	41	% 54
Bizkaia	218	% 28,4	204	% 74
Gipuzkoa	96	% 34,3	87	% 67

Geuk egina, Prokuradoreen Kontseilu Nagusiaren memoriako datuak oinarri hartuta (2016 eta 2020)

Hiru lurralde historikoetan, emakumeen presentziaren bilakaerak erakusten du erabateko aldaketa gertatu dela prokuradoreen hiru elkargoetan 5 urte horietan; izan ere, emakume prokuradoreen proportzioa heren bat izatetik lanbide horretan diharduten guztien bi heren izatera igaro dira.

Abokatutza

Espainiako Abokatutzaren Estatistika Sistemak egindako txostenaren arabera (2020ko martxoaren 1eko datuak), parekotasuna hurbil dago testuinguru horretan, eta errola orokorrean emakumezko abokatuak gizonezkoak baino gutxiago diren arren (% 44 vs. % 56), biztanleria-piramideak adierazten du emakume gehiago daudela kohorte gazteenetan.

EAEk erkidegoan dauden hiru Abokatuen Elkargoak batzen dituen erakunde bat du, Legelarien Euskal Kontseilua, alegia. Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuak, Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak osatzen dute aipatu kontseilua. Gai horri buruzko informazio gehiago jaso da 2.3 atalean.

2017an profesionalen elkargo bakoitzak emandako informazioa aintzat hartuta, emakume baino gizon gehiago zeuden elkargoetan. Hala bada, Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuan 832 elkargokide daude guztira, hain zuzen ere 451 gizon (% 54,2) eta 381 emakume (% 45,8). Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuan, berriz, 3.564 elkargokide daude, 2.045 gizon (% 57,4) eta 1.519 emakume (% 42,6), alegia. Eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuan 2.190 elkargokide daude orotara, 1.045 emakume (% 47,7) eta 1.145 gizon (% 52,3), hain zuzen ere.

Gaur egun, elkargokideen datu guztiak lurralde historikoaren arabera baino ez dira lortu, eta ez sexuaren arabera. Horrela, Arabako Elkargoan 845 pertsona daude, Bizkaikoan 4.785 eta Gipuzkoakoan 2.004. Hipotesi gisa, Araban eta, batez ere, Gipuzkoan izandako elkargokideen igoeraren datua bat etor liteke eremu horretan karrera profesionalean sartzen diren emakume gazteen kopuru handiagorekin.

Notariorzak

Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuak emandako informazioaren arabera, 132 notariorza daude jardunean EAEn; 99 notariorzatan gizonak dira buru, eta gainerako 33 notariorzetan, emakumeak. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko notariorzen % 25etan dira buru emakumeak.

Ezin izan dira autonomia-erkidegoetako eta Estatuko langileen sexuaren arabera bereizitako datuak erdietsi, Notariorzaren Kontseilu Nagusiaren estatistikek ekintza juridikoak baino ez baitituzte jorratzen, hala nola higiezinak, hipotekak eta sozietateak⁵.

Hala ere, komunikabide digitaletan¹ jasotako zenbait datuk adierazten dutenez, notarioen munduan emakumeen ehunekoa pixkanaka handitzen joan da oposizioetara aurkezteko aukera eman zitzaientetik. Izan ere, gero eta emakume gehiago ari dira notario-karrerarako oposizioak egiten, eta 2021ean oposizioak gainditu zituzten emakumeen ehunekoa % 60ra iritsi zen. Aldi berean, ituri horren arabera, *de facto* notario gisa lan egindako emakumeen presentzia % 30 ingurukoa zen.

⁵ Notariorzaren informazio estatistikorako zentroa: [Estatistikak osorik - notariorza](#)

- **Presentzia delituzko ekintzen biktima gisa**

Genero-indarkeria eta beste indarkeria mota batzuk pairatu dituzten emakumeak

Emakumeek pairatu ditzaketen delituzko ekintza guztietatik, indarkeria matxista da, zalantzarik gabe, desparekotasunik gorena adierazten duena.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren xedea da «indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo haiekin horren antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonak emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa». Definizio horretatik ondoriozta daiteke emakumeak baino ezin direla izan genero-indarkeriaren biktimak eta gizonak baino ezin dutela indarkeria erabili, botere-harreman desberdina oinarri. Dena den, emakumearen aurkako indarkeriari buruzko Istanbulgo Hitzarmenean (Espainiak 2014an berretsia) lortutako akordioari esker, kontzeptu hori zabaldu egin da, emakumearen aurkako indarkeria mota guztiak delitutzat hartuta: indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala, bortxaketa barne; emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza, jazarpena, behartutako abortua eta behartutako esterilizazioa.

Barne Ministerioiko Segurtasuneko Estatuko Idazkaritzaren genero-indarkeriako kasuen segimendu integralerako sistemaren arabera (VioGén sistema), 2022ko martxoaren 31an eguneratua, 671.597 genero-indarkeriako kasu⁶ zeuden Estatu osoan, aktibo zein inaktibo. Horietatik, 1.665 Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu ziren, eta inaktibo zeuden guztiak.

Era berean, Berdintasun Ministerioaren Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren Estatistika Atarian jasotzen denez, 2021ean 120.813 salaketa jarri ziren Espainiako lurralde osoan genero-indarkeriagatik. EAEn, 3.928 da zifra hori.

2021. urtean 44 emakume eta 7 adingabe erail ziren Espainian. Horietatik, bi gertatu ziren EAEn.

Emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuei dagokienez, Emakunde 2019ko uztaildean argitaratutako txostenean jasotako datuen arabera —«EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Datu estatistikoak 2018»—, azken urte horretan, Ertzaintzak 5.315 biktimizazio edo emakumeen aurkako indarkeria-kasu erregistratu zituen, eta 4.244 biktima, bikotekideek edo

⁶ Kasu aktiboak dira poliziaren arreta behar dutenak eta arrisku-maila jakin bat dutenak (txikia, ertaina, handia edo muturrekoa). Kasu inaktiboek ez dute poliziaren arretarik behar inguruabarren arabera. VioGén sistema.

bikotekide ohiek eraso egin zietenak, familiako beste gizon batek eraso egin zietenak eta familia-eremuan sexu-indarkeria pairatu zutenak.

Biktimizazioen kopurua % 5,57 hazi zen aurreko urtearen aldean. Halaber, 2017an baino 224 emakume gehiago izan ziren biktima.

Biktima izan diren emakumeen kopuruaren banaketa, pairatutako indarkeria motaren arabera taula honetan adierazten dira.

9. Taula: EAEn indarkerien biktima izan diren emakumeen kopuruaren banaketa

Indarkeriaren biktima diren EAEko emakumeen ehunekoa (%)	
Bikotekidearen do bikotekide ohiaren indarkeria	% 70,4
Familia barruko indarkeria	% 20,5
Sexu-indarkeria	% 9,1

Geuk egina, Emakunderen «EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Datu estatistikoak 2019» txostena oinarri hartuta.

Lurralde historikoen arabera, emakume horien % 54,4 Bizkaian bizi ziren, % 30,2 Gipuzkoan eta % 15,4 Araban.

- **Presentzia espetxe-sisteman**

Gizonak gehiengoa dira Espainiako eta Europako kartzeletan; horregatik, espetxeratutako emakumeen presentzia ez da nabarmentzen. Ikerketa gutxi aztertzen dute barneko bezala bizi direnen zaugarritasun-egoera edo espetxeetan ere diskriminaturik dauden, gizonen aldean.

Giza eskubideen aldeko zenbait elkartek salatu dutenez, espetxe-sistema ikuspegi androzentrikotik diseinatuta dago, eta, beraz, haien helburuak gizonezko presoetan zentratzen dira. Hala, bada, alde batera uzten dira preso dauden edo erdi-askatasunean dauden emakumeen behar espezifikoak, eta are gehiago seme-alabekin barneratuta dauden emakumeenak.

Espetxe barruan emakumeak ikusezin izateak eta genero-ikuspegian oinarritutako espetxe-politika urriek eragina dute, batetik, preso-bizitzan eta, bestetik, haien gizarteratzeko aukeretan (prestakuntza- eta lan-eskaintza sexista dago, askotan jostuntza- edo garbiketa-lanetara mugatzen dira horiek). Gainera, emakumeentzako espetxe gutxi egotea (delituen eta espetxeratze-zigorren indize txikiagoa dutelako) diskriminazioaren beste aldagai bat da, presoan familia- eta afektibitate-inguruetik urrun kokatuak izateko aukera gehiago dituztelako.

Hala bada, interesgarria litzateke genero-ikuspegia oinarri duten berriarazko azterlan gehiago edukitzea, hain zuzen ere ordenamendu juridikoa urratzeagatik espetxeratzeko dituzten emakumeen egoeran sakontzen dutenak; horrez gain, emakumezko presoak gizarteratzeari buruzko informazioa ere falta da. Justizia Sailaren webgunean (www.justizia.eus), adibidez, presoak gizarteratzeko programentzako dirulaguntzak baino ez dira aipatzen.

INEn datuak aintzat hartuta, Espainian 311.271 pertsonak jaso zuten zigorra epai imo bidez 2020an; horietatik, 254.942 (hots, % 81,9) gizonak ziren, eta 56.329 (hau da, % 18,1) emakumeak. EAEn 14.290 pertsona zeuden kondenatuta, eta horietatik % 17,7 emakumeak ziren.

Bestalde, giltzapetutako biztanleriari dagokienez, eta BJKNk jasotzen duen estatistikaren arabera, Espainian 55.097 pertsona zeuden espetxean 2021eko abenduan, zigortuak zein prebentzio-egoeran zeudenak kontuan hartuta; horietatik 51.172 gizonak ziren (%92,88) eta 3.925 emakumeak (% 7,12). Estatistika horri jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoan 1.274 gizon eta 114 emakume zeuden (preso guztien % 8,21).

Gizonen aldean arauak hausten dituzten emakume gutxiago badaude ere, Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren arabera, European Espainiak ditu emakumezko preso gehien, osasun publikoaren aurkako delituengatik normalean.

Espainian, emakumeentzako lau espetxe baino ez daude, eta horietako bat ere ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrenbestez, lurralde horretan giltzapetutako emakumeak bi egoera hauetako batean egon daitezke, epaitu dituzten delituaren arabera:

- Emakumeentzako moduluetan egotea gizonentzako espetxeetan. Espetxeok haurdun dauden edo kargura seme-alabak dituzten emakumeentzat prestaturik ez badaude, haien eskubideak urratu egin litezke.
- Edo erdi-askatasunean dauden nahiz etxean aurrez aurreko edota gailu telematikoen bidezko kontrolen mende bizi diren emakumeak izatea (Espainiako gainerako lurraldeen aldean egoera pribilegiatua dena).

EAEn, Ertzaintzaren estatistiken arabera, ordenamendu juridikoa hausteagatik justizia-administrazioa erabiltzen duten (atxiloketak soilik) emakumeen kopurua gizonena baino askoz txikiagoa da delitu mota guztietan, honako taula honetan ikus daitekeen legez.

10. Taula: Ordenamendu juridikoa hausten duten emakumeen eta gizonen ehunekoa EAEn, delitu motaren arabera

Atxiloketaren arazoia	Atxiloketak		
	E	G	Guztira
Giza hilketak eta bere formak	% 5,5	% 94,5	18
Lesioak	% 27,5	% 72,5	3.749
Tortura eta osotasunaren aurkako delituak	% 20,5	% 79,5	1.866
Sexu-askatasunaren kontrako delituak	% 2,5	% 97,5	367
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren kontrako delituak	% 27,3	% 72,7	12.205
Denon segurtasunaren aurkako delituak	% 9,8	% 90,2	2.254
Beste arau-hauste penal batzuk	% 21,7	% 78,3	4.243
Arau-hauste penalak, guztira	% 23,9	% 76,1	24.702

Geuk egina, 2019ko abendutik irailera bitartean Ertzaintzak eginiko atxiloketen estatistikak oinarri hartuta.

Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua (ZKEZ)

1978ko Espainiako Konstituzioak ezarri zuen zigortuak gizarteratzea eta heztea zela zigorrak ezartzearen helburu nagusietako bat.

Askotan, espetxean sartzea ordeztzen duten beste lege-aukera batzuek ordezkatu ditzakete askatasuna kentzeko zigorrak, zigor-erantzukizuna betetzeari utzi gabe.

Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua (ZKEZ) beste aukera horiek bilatzeaz arduratzen da, baldin eta legean ezarritako baldintzak betetzen badira.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publiko horren 2019ko memoriaren arabera (epaitegi eta auzitegiek ezarritako neurriak behar bezala betetzen diren zaintzeaz arduratzen da), 2019an zigortutako 4.593 pertsonak izan dute ordezeko neurriren bat, hala nola komunitatearen aldeko lanak egitea, askatasuna kentzeko zigorrak etetea eta epaitegiek zein auzitegiek segurtasun-neurriak ezartzea. Pertsona horietatik, 587 (hau da, % 12,8) ziren emakumeak.

Badira **esku-hartze planak**, eta horien helburua da zigortutako pertsonak erantzukizuna har dezan erraztea, espetxearen ordezeko beste neurri batzuei bide emate aldera. Aipatu esku-hartze planak bereziak dira, hau da, pertsona bakoitzaren inguruabarretara egokitzen dira. Horri esker, zigor-jokabidea errepikatu dadin saihesten da.

Taula honetan ikus daiteke emakume baino gizon gehiago igarotzen direla plan horietatik, esku-hartze mota guztietan.

11. Taula: ZKEZek kudeatutako espetxearen ordezeko neurriak (2019)

ZKEZek kudeatutako espetxearen ordezeko neurriak (2019)				
	Emakumeak		Gizonak	
Esku-hartze planak	522	% 11,8	3.900	% 88,2
Komunitatearen onurarako lanak	340	% 13,3	2.208	% 86,7
Bide-segurtasunaren aurkako delituengatik lantegiak	91	% 9,5	861	% 90,5
Genero-indarkeriako programak	0	0	526	% 100
Ohitura kentzeko tratamenduak	51	% 8,7	537	% 91,3
Osasun mentaleko tratamenduak	40	% 16,2	206	% 83,8
Sexu-hezkuntzako programa	0	0	47	% 100
Beste neurri batzuk	65	% 6,1	106	% 93,9
GUZTIRA	587	% 12,8	4.006	% 87,2

Zigorrak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuaren (ZKEZ) memoriatik ateratako datuak (2019)

Aipatzekoa da ZKEZ erkidegoarekin koordinatzen dela neurri eta plan horiek ahal bezain ondo kudeatzeko eta, hartara, erkidegotik bertatik eman daitezen zigor-jokabidearen ordezeko aukerak.

Justizia errestauratiboa

Halaber, eta ordainsari-justiziaren (zigorra) ordezkari bada bestelako justizia-eredu bat EAEn, zeinak bitartekaritza baliatzen baitu biktimari eragindako kaltea ordaintzeko. Justizia errestauratibo deritzo eredu horri. Justizia tradizionala ordeztu nahi ez badu ere, are gizatiarragoa da eredu hori; izan ere, biktima da protagonista bertan, eta kalte fisikoa eta ondarean

eragindako kaltea ez ezik, alderdi emozionala ere hartzen da kontuan. Justizia-sistema horretan, errestaurazioa, erreparazioa eta adiskidetzea zigor-arloko justiziaren balio osagarri bihurtzen dira.

EAEen **Zigor-arloko Bitartekotza Zerbitzua (ZBZ)** dago, eta gaur egun Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroak (GEUZ) Barakaldon eta Arabako Birgizarteratze Institutuak (EBI) Gasteizen kudeatzen dute. 2018ko Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuari buruz Interneten eskuragarri dagoen azken zigor-arloko memoriaren arabera, urte horretan 818 espediente bideratu ziren, eta horietatik % 36,7 emakumeenak ziren; 428 espediente itxi ziren, horietatik % 37,2 emakumeenak; horietatik 341 prozesu errestauratiboarekin eta adostasunarekin itxi ziren (emakumeen % 36,7) eta 87 espediente adostasunik gabe itxi ziren (emakumeen % 39,1).

Aitzitik, urte bereko Familia Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren memoriak 92 pertsona aipatzen ditu (demandatzaileen eta demandatuen artean), % 51,1 emakumeak.

Datu eguneratuagoekin, familia-eremuan **Familia Bitartekaritzako Zerbitzu (FBZ)** espezifikoa bat dago, eta 2020ko memoriaren arabera, EAEen artatutako pertsonak pixkanaka ugartzen joan dira 2018tik. Hala, 11.705 izatetik 13.979 izatera igaro dira, eta azken horietatik % 61,6 emakumeak izan ziren (zehazki, 8.618 emakume eta 5.361 gizon).

Aztertu behar diren gaiak, funtsean, zaintzari, egonaldi- eta komunikazio-erregimenari eta familia-kargen eta/edo elikagaien kuantifikazioari eta banaketari buruzkoak dira. Aipatu gaiak zuzenean eragiten diete emakumeei; horrenbestez, ezinbestekoa da horiek aztertzea.

Bestalde, bitartekotza-zerbitzu hori ematen duten pertsonen profila batez ere emakumezkoa da. Eusko Jaurlaritzako Bitartekarien Erregistroan (2021eko urriaren 20an eguneratua) agertzen diren 447 pertsonetatik 50 baino ez dira gizonezkoak (% 11,2).

Gazteen justizia

Gizonezko adingabe gehiagok hausten dituzte arauak, emakumezkoen aldean.

INEren datuen arabera, 2020an 11.238 adingabek⁷ jaso zuten zigorra epai irmo bidez Espainian, eta horietatik 2.156 ziren emakumeak, hau da, % 19,18.

EAEko gazteen justiziarri dagokionez, gazte-justiziako planak dira planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko oinarritzko tresnetako bat. Egun, V. plana dago abian, 2020tik 2024ra bitartean. Planaren xedea da EAEko Fiskaltzatik eta Adingabeen Epaitegietatik heltzen diren eskeei erantzutea. Haren oinarritzko printzipioen artean, honako hauek daude: erantzukizun penalaren eredu zehatzaile eta hezitzailea ezartzea; eskubide guztiak zorrotz

⁷ 14 eta 17 urte bitarteko pertsonak. Justizia Ministerioaren Adingabeen Zigor Erantzukizuneko Epaien Erregistro Nagusian du sorburua pertsona zigortuei buruzko estatistika.

errespetatzean oinarritutako sistema bermatzailea; erantzukizuna aitortzea; beharrezkoa den gutxieneko esku-hartzea; adingabearen interes gorena; eta komunitate-ikuspegia normalizatzea.

2018ra arte indarrean egon zen Gazte Justiziako IV. Planaren ebaluazioaren arabera, EAEn arau-hausleen profila 16 eta 17 urte bitarteko gizonak dira, eta arau-hausteen aurrean ezarritako neurrien kopurua, sexuaren arabera, ez da % 18tik gorakoa, ez EAEn, ez gainerako autonomia-erkidegoetan. Txosten horren barruan, 2019rako neurrien eskaeraren memorian ikusten da mutilak gehiengoa direla lapurreten (% 93), lesioen (% 80), ebasketen (% 74) eta familia barruko indarkeriaren (% 69) aurrean ezarritako neurriei dagokienez. Era berean, kalkulatu da neurri irmo guztien % 16 soilik aplikatu zaiela neskei (ehuneko hori % 10era jaisten da barneratze-zentroko betetze-neurrien taldean, eta % 19ra igotzen da ingurune irekiko betetze-neurrietan). Kautelazko neurriei dagokienez, gehienak mutilei ezarri zitzaizkien (% 75).

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Genero-desparekotasunak desabantaila-egoeran ipintzen ditu emakumeak gizonen aldean; izan ere, esparru publikotik baztertzen ditu emakumeak, eta, hartara, aukera gutxiago dituzte ekonomia-, lan-, gizarte- eta kultura-baliabide ezberdinak lortzeko.

Emakumeen eta gizonen errealitate desberdinak direla eta, emakumeek zailtasun handiagoak dituzte ahalik eta gehien garatzeko eta aukera berberak lortu ahal izateko.

- Unibertsitateko eta hirugarren zikloko hezkuntzara iristea:

ELGAn 2021erako Hezkuntzaren Panorama txostenean jasota dagoenez (*Education at a Glance*), derrigorrezkoak ez diren ikasketak aukeratzeko orduan, faktore kulturalak, ekonomikoak eta genero-estereotipoak daude tartean, ikasleei zein irakasleei dagokienez.

Espanian, 15-19 urteko biztanleriaren eskolatzeta-tasa % 87,0 zen 2021ean, ELGAko batezbestekoa (% 83,5) baino handiagoa, baina EB22ko batezbestekoa (% 88,1) baino zertxobait txikiagoa. Hala ere, adin-talde horretako emakumeen eskolatzeta-tasa (% 88,8) gizonena (% 84,8) baino handiagoa da, eta ELGAko herrialdeen artean alderik handienetako bat da hori. Adin-tarte horretan bertan, biztanleriaren zati bat hirugarren hezkuntzan eskolatuta dago (ziklo laburra, gradua, masterra edo doktoregoa). ELGAN, batez beste, emakumeen % 12,8 eta gizonen % 9,6 hirugarren hezkuntzan eskolatuta daude; Espainian, berriz, ehuneko horiek % 20,6 eta % 15,4 dira, hurrenez hurren.

ELGAn txostenaren datuei erreparatuta, hirugarren hezkuntzan sartzen diren herritar guztiei dagokienez, edozein adinetakoak direla ere, Espainiak du hezkuntza-maila horretarako sarbide-tasarik handienetako bat (% 63,7), eta tasa hori nabarmen handiagoa da ELGAn (% 50,8) eta EB22ren (% 50,1) nazioarteko batezbestekoena baino. Hala eta guztiz, tasa hori jaitsi egiten da master-programetan sartzeari dagokionez, inbertsio ekonomiko handia egin behar baita. ELGAn batezbestekoaren antzekoa da tasa hori, baina EBko batezbestekoaren azpitik dago. STEM (Zientziak, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) diziplinen esparruan hirugarren hezkuntzan sartzen diren Espainiako ikasleen ehuneko ere txikiagoa da: % 25,0 Espainian, % 27,4 ELGAN eta % 28,2 EB22n.

Espainiako testuinguru geografikoari, demografikoari eta ekonomikoari so eginez gero, argi dago EAren egoera Estatuarena baino hobea dela sexu bietan, hezkuntza-mailan eragin dezaketen adierazleei dagokienez (langabezia-tasa edo *per capita* errenta, kasurako).

12. Taula: Testuinguru geografiko, demografiko eta ekonomikoaren adierazleak Espainian eta EAEn, sexu bietan

Testuinguru geografiko, demografiko eta ekonomikoaren adierazleak Espainian eta EAEn, sexu bietan						
	Biztanleria, guztira	0-29 urte bitarteko biztanleria ren %	Biztanleko BPGd (eurotan)	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Derrigorrezko ikasketen ondokoak amaitu dituen biztanleriaren %
Espainia	47.450.795	29,9	26.438	57,4	15,5	62,9
EAE	2.220.504	27,3	30.401	55,1	9,5	75,3

Geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren 2019-2020 ikasturterako datuetan oinarrituta.

Datu horiek Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Hezkuntzaren Adierazleen Estatuko Sistemaren berresten dira; izan ere, 2021eko argitalpenean aurreko ekitaldiko datuak jaso ziren, eta horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan dago goi-mailako hezkuntza duten 25-34 urteko biztanleen ehuneko handiena (% 61,7), bai emakumeen (% 67,3), bai gizonen (% 56,0) kasuan. Estatuko batezbestekoa % 47,4koa da (% 53,5 emakumeek eta % 41,3 gizonek).

Ezin uka daiteke genero-erolek eragina dutela emakumeek eta gizonek ikasketak aukeratzen dituztenean. Horiek bultzatuta akaso, emakumeek emakumezkoenak izan ohi ziren ikasketak aukeratzen dituzte (hezkuntza, osasuna, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak), eta gizonek, aldiz, gizonezkoenak izan ohi zirenak (ingeniaritzak, teknologiak). Edozelan ere, unibertsitateko ikasleen ehunekoa oso handia da, bai Espainian bai EAEn.

Gizarte eta Lege Zientzietako ikasketek dagokienez, INEren datuen arabera, 2020an % 60,4 ziren matrikulatutako emakumeak Espainian.

EAEn ere matrikulatutako emakumeen ehunekoa, aurreko atalean ikusi den bezala, gizonena baino altuagoa da, bai unibertsitate publikoetan, bai pribatuetan. Hori ematen dute aditzera Eustaten datuek.

13. Taula: Gizarte eta Lege Zientzietan matrikulatutako ikasleen ehunekoa EAEn

	Guztira	E	G
Guztira	33.005	% 59,2	% 40,8
Gizarte eta Lege Zientziak unibertsitate publikoetan	20.566	% 60,0	% 40,0
Gizarte eta Lege Zientziak unibertsitate pribatuetan	12.439	% 57,6	% 42,4

Geuk egina, Eustaten datuak oinarri hartuta (2019-2020 ikasturtea)

Bestalde, aipatzekoa da irakaskuntza bakoitzaren saiakera-mailaren arabera, graduaren prezioa handiagoa edo txikiagoa dela. Adibidez, Biologia edo Medikuntza unibertsitate-ikasketa garestienetakoak dira, eta Zuzenbidea, berriz, merkeagoa da.

Beka-sistemari dagokionez, badira ikasketa-laguntza ezberdinak: irakaskuntza-bekak, garraio-bekak, prezio publikoen eta zerbitzu akademikoen salbuespenak, ikasketen amaierako proiektuetarako laguntzak, bikaintasun akademikoko bekak eta abar.

Nazionalitateari, espediente akademikoari edo baldintza ekonomikoari buruzko irizpide jakin batzuen arabera jasotzen dituzte ikasleek aipatu dirulaguntzak.

Unibertsitate Ministerioaren datuen arabera, 2019-2020 ikasturtean honako beka hauek eman ziren unibertsitate publiko guztietan oro har eta Euskal Herriko Unibertsitatean bereziki graduko zein masterreko ikasketetarako:

14. Taula: Espainiako unibertsitate publiko guztietan eta Euskal Herriko Unibertsitatean emandako beka kopurua

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeen %
Espainiako unibertsitate publikoak	302.549	190.886	111.683	% 63,1
Espainiako unibertsitate pribatuak	20.450	14.579	5.871	% 71,3
EAEko unibertsitate publikoak	1.159	804	355	% 69,4
EAEko unibertsitate pribatuak	171	101	70	% 59,1

Geuk egina, EducaBase estatistikak oinarri hartuta (Unibertsitate Ministerioa) (2019-2020)

Taulari begiratuta esan liteke gizon baino emakume gehiagok eskuratzen dituztela beka unibertsitate-ikasketak egiteko. Horretatik guztitik ondoriozta daiteke, alde batetik, emakumeek ez dutela erosahalten nahikoa, eta oraindik ere prestakuntza aukeratzeko orduan eragina duten genero-alborapenak dauden arren, emakumeek unibertsitate-ikasketetarako sarbidea hobetzeko beketara jotzen dutela neurri handiagoan, bai Espainian bai EAEn. Bereziki esanguratsua da unibertsitate publikoetarako emandako ikasketa-beken kopurua EAEn.

Unibertsitate Ministeriotik datozen datuekin, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko beka orokorren onuradunen estatistikari jarraituz, **ikasketa-eremu unibertsitarioari** dagokionez, Hezkuntzako eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako diziplinek dute bekadunen ehuneko handiena (% 43,5 eta % 35,4, hurrenez hurren). Ostera, negozio, administrazio eta zuzenbide gisa sailkatutako ikasketek ikasle bekadunen ehuneko txikiena dute (% 21,9), Ingeniaritza, Industria eta Eraikuntzako ikasle bekadunen gainetik soilik (% 20,9). Horrez gain, graduko hezkuntza-eremu guztietan emakume bekadunen ehunekoa gizon bekadunena baino handiagoa da.

Emakumeek goi-mailako edo hirugarren zikloko ikasketak egiteko izan ohi dituzten zailtasun berezien zati bati aurre egiteko modu baten erakusgarri izan daiteke beka gehiago eskuratzea; bi arrazoi posibleren ondorioz dituzte zailtasun horiek. Lehenik eta behin, master eta graduondoko ikasketak egiteko beste inbertsio ekonomiko bat egin behar delako (eta hori lortzeko zailtasun handiagoak dituzte); zenbat eta zientifikoagoak eta teknologikoagoak ikasketok, gainera, orduan eta handiagoa izango da inbertsio hori. Bigarrenik, emakumeek ikasketak zabaltzeko denbora gutxiago dutelako, bai gizonak baino denbora gehiago ematen dutelako zaintza-lanetan, bai bertan egotea eskatzen duten eta lana eta ikasketak uztartzea zailtzen duten lanpostuetan daudelako, laneratzea lortu badute.

Berdintasunaren arloko prestakuntza zuzenbide-graduako ikasketetan eta etengabeko prestakuntzan

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aintzat hartzen ez duen gizartea ez da hain demokratikoa izango, ez da hain justua eta ez da hain solidarioa izango. Eta horretan zerikusi handia du, zehazki, operadore juridikoen prestakuntzak. Boterearen egikaritzea gizonek izan dute tradizioz, eta patriarkatuari eusteaz arduratu diren eremuen artean, eremu juridikoa eta hezkuntzako nabarmentzen dira. Funtsezkoa ikasleentzat eta irakasleentzat: eskuliburuetan ez dagoena ez da existituko etorkizuneko profesionalen —pertsonek— buruan.

Unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen 1393/2007 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua xedatzen duenez, titulu berrien diseinua funtsatu beharko den printzipio orokorren artean, ikasketa-planek kontuan izan beharko dute edozein lanbide-jardueraren oinarri izan behar dutela honako hauek: oinarriko eskubideak, giza eskubideak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, irisgarritasun-printzipioak, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, bakearen kulturaren balioak eta balio demokratikoak.

Gaur egun herritarrek dituzten giza eskubideak eta oinarriko eskubideak lortze aldera emakumeek egindako ekarpenen erreferentziak falta dira. Zientzialari feministen talde eta sareek abiatu dituzten azterlan eta ikerketak izan ezik, oso zaila da emakumeek oinarriko eskubideei egindako ekarpenak aipatzen dituzten iturriak aurkitzea, Espainiako Estatuaren kasuan, hala nola Clara Campoamor, Victoria Kent edo Lida Falcón. Eta are gutxiago Sojourner Truth, Olimpia de Gouges edo Mary Wollstonecraftek izandako borrokak. Oraintsuago, zuzenbidearen pentsamendu feminista eta bere teoria juridiko desberdinak aldarrikatuz, ezin dira ostrasismo intelektualean geratu honako hauek: Catharine MacKinnon, Susan Moller Okin, Frances Olsen, Tove Stang Dahl edo Kimberlé Crenshaw, baita Audre Lorde edo Shirin Ebadi aktibistak ere. Emakumeak izateaz gain, beste diskriminazio batzuk ere pairatzen dituzte, aipatutako legelari batzuekin gertatzen den bezala.

Isonomia ikerketa-taldea. Jaume I.a Unibertsitateko Unitat d'Igualtat atalak azterlan bat egin zuen Jaume I.a Unibertsitateko graduako ikasketa-planetan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko irakaskuntzak txertatzeari buruz. Bertan, irakaskuntzen antolamenduaren azterketa zehatza egiten da (moduluak, ikasgaiak eta irakasgaiak, ANECAren irizpideen arabera definituta⁸), ikasgaien tipologia eta Graduako Ikasketa Planen Memoretan agertu behar duten nahitaezko egitura eta edukiak kontuan hartuta. Zuzenbideko graduari dagokionez, titulazioaren helburuen artean ez dago genero-ikuspegiari, diskriminaziorik ezari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko aipamenik. Ez dago jasota genero-ikuspegiari, diskriminaziorik ezari eta emakumeen eta

⁸ ANECA, unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeke ebaluazio-protokoloa (gradua eta masterra)

gizonen berdintasunari buruzko berariazko erreferentzia duen irakasgairik (oinarrizko prestakuntza, nahitaezkoa eta hautazkoa), ez izenburuari ez edukiei dagokienez ; titulazioen % 27k baino ez du.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) 2013an onartu zuen Karrera Judizialeko Berdintasun Plana. Plan horren helburuen artean zegoen bermatzea karrera judizialera iristen direnek prestakuntza egokia izango dutela berdintasunaren, genero-indarkeriaren aurkako borrokaren eta genero-ikuspegiarekin auzipetzearen arloan, Nazio Batuen CEDAW Batzordeak 2014ko uztailaren 16an emandako irizpenean agindutakoak betez. Karrera Judizialeko II. Berdintasun Planak⁹ (2019-2020) lehen planean sartutako neurrien ezarpen-mailaren ebaluazioa jasotzen du. Azterketaren emaitzen artean, Karrera Judizialean eta Fiskalean txanda librean sartzeko oposizioen gai-zerrendaren berrikuspen sakona bildu da, BJLOren 310. artikulua berriaren eskakizunetara egokitzeko. Horretarako, berdintasun-printzipioaren aplikazioari, genero-ikuspegiarekin auzipetzeari eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari buruzko eduki espezifikoak sartu dira honako arlo hauetan: zuzenbide konstituzionala (2 gai), zuzenbide zibila (2 gai), zuzenbide penala (6 gai), zuzenbide prozesal zibila (4 gai), zuzenbide prozesal penala (5 gai), zuzenbide administratiboa (gai 1) eta lan-zuzenbidea (8 gai).

Karrera judizialean sartzeko izangaien hasierako prestakuntzari dagokionez —Eskola Judizialean ematen dena—, emaitzek erakusten dute eduki teorikoak integratu direla Eskola Judizialaren Irakaskuntza Planaren prestakuntza arruntean, bai monografikoak (emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatzeko berariazko moduluak, nahiz genero-indarkeriaren adierazpen guztiei buruzkoak), bai hainbat mintegiren bidez, jurisdikzioaren gaiari genero-ikuspegitik helduz.

- II. planaren helburua da karrera judizialeko kideen etengabeko prestakuntza bermatzea berdintasunaren arloan, genero-zeharkakotasuna ezartzea eta genero-ikuspegia aplikatzea BJKNren prestakuntza-jarduera osoan. **Enplegua eta karrera profesionala izatea:**

Gizarte eta Lege Zientzietan 1. eta 2. zikloko ikasketak amaitutakoan, ingeniaritzak, arkitektura eta zientziak ikasi dituztenek baino laneratzeko aukera gutxiago dituzte ikasleek, baina arteak eta giza zientziak eta osasun-zientziak ikasten dituztenek baino gehiago.

INEk Espainiarako egindako unibertsitate tituludunen laneratzeari buruzko azken inkestan (2019. urtea) ageri denez, 2013-2014 ikasturtean ikasketak amaitu zituzten pertsonen Estatu mailako laneratzeari buruz, ikasketa-adarraren arabera, egoera honelakoa da:

⁹ Karrera Judizialeko II. Berdintasun Plana

15. Taula: Unibertsitateko gradudunen jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak, sexuaren eta titulazioaren arabera, Espainian

	Titulazio guztiak			Negozioak, administrazioa eta zuzenbidea			Zuzenbidea bakarrik		
	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G
Guztizko egresatuak	233.626	136.769	96.857	48.349	27.691	20.658	15.958	9.146	6.812
Jarduera-tasa	93,6	93,0	94,4	91,2	90,4	92,4	85,9	85,1	86,8
Enplegu-tasa	86,1	84,9	87,8	84,0	83,7	85,7	78,7	77,3	80,5
Langabezia-tasa	8,0	8,8	7,0	8,0	8,6	7,2	8,4	9,2	7,3

Geuk egina. 2013-2014 ikasturteko Unibertsitateko Tituludunen Laneratzeari buruzko 2019ko Inkestako INEren Datuak oinarri hartuta

Aurreko taulako informazioak erakusten duenez, alde batetik, **negozioak, administrazioa eta zuzenbidea diziplinako lan-merkatuaren adierazleak** ikasketa-diziplina guztien batez besteko tasen azpitik daude. Eta, bestetik, negozio, administrazio eta zuzenbideko sektoreko unibertsitate-ikasketetara emakume gehiago sartzen diren arren, lan-merkatuko adierazle nagusi guztietan, espezialitate berean graduatutako gizonak baino zifra kaskarragoak dituzte. Hau da, emakumeek jarduera- eta enplegu-tasa txikiagoak eta langabezia-tasa handiagoak dituzte. Zuzenbideko titulazio espezifikoari erreparatuz gero, egoera antzekoa da.

Hala ere, INEren iturri beraren arabera, zuzenbideko unibertsitate-gradu ikasketak dituzten pertsonen **Gizarte Segurantzako afiliazio-mailak** aztertzean (guztira 10.425 ziren 2019rako Espainia osoan), aldeak daude titulazio hori duten afiliatuen kopuruan; emakume gehiago daude (5.939 emakume eta 4.487 gizon). Datu horiek martxokoak baino ez dira, eta lanean ari zirela edo langabezia kobratzen ari zirela esan nahi dute. Desberdintasunen harira, interpretazio interesgarriagoa egin dezakegu besteren konturako gizarte-segurantzako afiliatuen eta norberaren konturako afiliatuen artean. Azken estatus horretan, gizonak gehiengo dira hilabete berean (501 gizon eta 372 emakume). Bulego juridikoetako bazkideen estatusa adierazten du horrek, enplegatuen estatusaren aldean, nahiz eta zifrak ez diren oso esanguratsuak.

Unibertsitateko Tituludunen Laneratzeari buruzko Inkestak ez du sexuaren arabera bereizitako autonomia-erkidegoko daturik argitaratu; hala ere, 2013-2014an negozioen, administrazioaren eta zuzenbidearen adarrean graduatu ziren eta 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden pertsonen kopurua 1.692 zen (Estatuko guztizkoaren % 4,6), eta horietatik 262 unibertsitate-masterrak ziren.

2020ko «UPV/EHU-ren adierazle-sistema gizarteari kontuak emateko» txostenaren azken edizioaren arabera, **UPV/EHUko tituludunen Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa % 78,9koa** da ikasketak amaitu eta lau urtera, eta % 71,6koa Estatuko gainerako unibertsitate publiko presentzialetan. Horietatik, % 79,4 gizonak dira eta % 78,6 emakumeak. Alde hori nabarmenagoa da ikasketak amaitzen diren urtean (% 45 emakumeak eta % 49 gizonak).

Ikasketak amaitu eta lau urtera, Gizarte Segurantzaren afiliatutako biztanleriaren ezagutza-adarraren arabera kotizazio-taldeei erreparatuz gero, horietako bat gehien urruntzen da unibertsitate-taldetik; hain zuzen ere, **Gizarte eta Lege Zientzietako** tituludunak. Gainerako ikasketen adarrarekin alderatuta, kotizazio ertaineko taldeetan (eskuzkoak ez direnak) eta kotizazio txikiko eta eskuzko kotizazio-taldeetan agertzen dira gehien. Alegia, gizarte- eta lege-zientzietako ikasketak amaitu dituzten pertsonak gutxiago kotizatzen dute dagokien kategorian. Izan ere, adar horretan egiten dira borondatezko praktika gehien EAEn (% 36).

UPV/EHUko adierazle-sistemari buruz arestian aipatutako txosten berean aipatzen denez, ikasketa ekonomiko-juridikoen adarrak du **enplegu doia**ren **tasarik** txarrena (lortutako prestakuntzaren eta betetako lanpostuaren profilaren arteko doitze-maila neurtzen du, eskatutako kualifikazioari dagokionez); % 66 soilik. Sexuaren arabera, berriz ere egiaztatzen da batez besteko enplegu-tasa hori txikiagoa dela emakumeen artean, eta alde handienak ikasketa ekonomiko-juridikoetako tituludunen artean daude. Hamar puntutik gorako aldea dago gizonen (% 72) eta emakumeen (% 62) tasetan.

Oro har, ikasketak amaitu eta lau urtera **kontratu mugagabea** duten UPV/EHUko ikasleen proportzioa % 42 da (% 36 emakumeen artean eta % 49 gizonen artean), baina ez dago ikasketa-adarraren arabera bereizitako daturik. Aurreko informazioa aztertuz gero, emakumeak gehiago dira Gizarte eta Lege Zientzietako karreretan eta, zehazki, Zuzenbideko Graduan, baina oraindik ere gizonak baino oztopo gehiago dituzte lan-merkatuan sartzeko. Gainera, enplegua topatzen dutenean, gizonak baino soldata-baldintza okerragoak izaten dituzte, generoaren arabera soldata-arrakalaren ondorioz. EAEn datuak estatuko batezbestekoaren aldea hobeak badira ere, INEren 2019ko soldata egituraren azken inkestaren datuek adierazten dutenez, emakumeen batez besteko soldata-ehunekoa, lanordu arrunt bakoitzeko, gizonen orduko irabaziaren % 90,49 da.

16. Taula: Emakumeen eta gizonen lanordu arruntagatik irabazia

Lanordu arruntagatik irabazia.	Emakumeak	Gizonak
Espainia, sektore guztien batezbestekoa	14,92	16,63
Espainia, zerbitzuen sektorea	14,93	16,86
EAE, sektore guztien batezbestekoa	18,46	20,40
EAE, zerbitzuen sektorea	18,35	20,48

INEren Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta egina (2019)

Horri dagokionez, UPV/EHUK eta Lanbidek Ekonomia eta Lege Zientzien adarreko 2017an ikasketak amaitutako unibertsitateko laneratzeari buruzko 2020. urtearen amaierako azterlanean jasotakoaren arabera, lanaldi osoko 14 ordainsariko hileko soldata garbia 1.398 €-koa da emakumeen kasuan, eta jarduera horretan lan egiten duen biztanleria osoaren batezbestekoa 1.460 €-koa da. Gainera, txosten horrek lehen aipatutako oztopoak biltzen ditu, eta adierazten du emakumeek batez

beste 10,5 hilabete behar izaten dituztela lehen enplegua aurkitzeko ikasketa ekonomiko-juridikoak amaitu ondoren; gizonek, berriz, 9,3 hilabete behar izaten dituzte batez beste. Horrez gain, emakumezko egresatuen ia % 38k urtebete baino gehiago behar izaten dute lana aurkitzeko, eta gizoneko egresatuen kasuan % 32,6koa da ehuneko hori.

- **Justizia-administrazioaren baliabideak eskuratzeko aukerak erabiltzaile gisa. Baliabide ekonomikoak:**

EAEko (eta Espainiako) emakumeen eta gizonen egoera ekonomikoa aztertuz gero, ikus daiteke emakumeek gizonek baino errenta-maila txikiagoa dutela eta, hartara, baliabide mota oro erdiesteko zailtasun handiagoak.

EAEko batez besteko errenta 23.500 €-koa zen pertsona bakoitzeko 2019an. Gizonen kasuan, 28.200 €-koa zen errenta hura, eta emakumeen kasuan, aldiz, 18.800 €. Horrek esan nahi du zerbitzu juridiko pribatuak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztela.

Biztanleria orokorraren langabezia-tasa ere kontuan hartu beharreko adierazle garrantzitsua da, handiagoa baita emakumeen artean gizonen artean baino, bai Espainian, bai 28en EBn, bai EAEn.

17. Taula: Emakumeen eta gizonen langabezia-tasa

16 eta 74 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasa	Emakumeen langabezia-tasa	Gizonen langabezia-tasa
EB 27	7,3	6,8
Espainia	17,4	13,9
EAE	10,8	10,5

Geuk egina, Eustaten datuak oinarri hartuta (2020).

Okupazio-tasa ere aintzat hartu beharra dago. Izan ere, datua alderantzikatu egiten da adierazle honetan, eta txikiagoa da emakumeen kasuan.

18. Taula: Emakumeen eta gizonen okupazio-tasa

16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa	Emakumeen okupazio-tasa	Gizonen okupazio-tasa
EB 27	62,4	72,8
Espainia	55,7	66,1
EAE	63,6	69,6

Geuk egina, Eustaten datuak oinarri hartuta (2020).

Adierazle horiek eta generoaren araberako soldata-arrakalaz gain, kontuan hartu behar da guraso bakarreko familiek dutela pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzeko arrisku handiena, zeinetan batez ere bakarrik dauden amek izaten duten familiaren ardura —benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketari buruz Eustatek biltzen dituen adierazle guztien arabera, etxebizitza mota soziodemografikoari dagokionez—. Beraz, hori guztia aintzakotzat hartuta, ama horiek baliabide ekonomiko, sozial, kultural edo laboraletarako sarbide txikiagoa dute. Hortaz, epaitegien aurrean auzitan ibiltzea erabakitzen duten emakume askok **doako justiziaren** eskubidea erabili beharko dute.

Espainiako Konstituzioaren 119. artikulua arabera, justizia doakoa izango da auzitan ibiltzeko baliabide ekonomikorik ez dutela frogatzen dutenentzat. Konstituzioaren eskubide horrek hainbat prestazio hartzen ditu barnean, besteak beste: abokatu-defentsaren eta prokuradore-ordezkapenaren ordainketaren dispentsa, fidantzak eta tasa judizialak.

Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsona fisikoek baliatu ahal izango dute eskubide hori; horretarako, familia-unitatearen errenta guztiak zenbatuko dira, eta ezin izango dira honako muga hauek gainditu¹⁰:

- Eskaera egiteko unean indarrean dagoen ondorio askotariko errenta adierazle publikoa halako bi, familia-unitate bakar batean sartuta ez dauden pertsonak direnean (2016an, 12.780,26 €).
- Eskaera egiteko unean indarrean dagoen ondorio askotariko errenta adierazle publikoa halako bi eta erdi, lau kide baino gutxiagoko familia-unitate modalitateetako batean sartutako pertsonak direnean (2016an, 15.975,33 €).
- Adierazle horren halako hiru, lau kide edo gehiagoz osatutako familia-unitateak direnean (2016an, 19.170,39 €).

Bestalde, **genero-indarkeriaren eta gizakien salerosketaren biktime** diren pertsonak berehala lortuko dute eskubide hori biktime diren prozesuetan, auzitan ibiltzeko baliabideak dituzten gorabehera.

Aintzat hartzekoa da datu hori; izan ere, genero-indarkeriaren biktimek beti dira emakumeak, baita gizakien salerosketaren biktime bi heren ere, Drogaren eta Delituaren kontrako Nazio Batuen Bulegoaren datuen arabera (UNODC).

Barne Ministerioak Espainiako salerosketaren biktimei buruz egindako azken txostenaren arabera, 2020an salerosketagatiko eta esplotazioagatiko 1.232 biktimizazio detektatu ziren Espainian, eta horietatik % 62k emakumeak eta neskatoak izan zituzten biktimatzat. Ehuneko hori % 90etik gorakoa da salerosketari eta sexu-esplotazioari dagokienez.

19. Taula: Lan-salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimeak

2020. urtea	Helduak		Adingabeak		EAE
	E	G	Neskak	Mutilak	
Sexu-salerosketaren biktimeak Espainian	145	12	2	1	0
Sexu-esplotazioaren biktimeak	398	9	7	1	2
Lan-salerosketaren biktimeak	65	33	1	0	2
Lan-esplotazioaren biktimeak	138	406	2	2	44
Ezkontza behartuen biktimeak	1	0	2	0	0
Kriminalitate behartuaren biktimeak	5	2	0	0	0
Eskaletasun-salerosketaren biktimea identifikatuak	0	0	0	0	0
Guztira	752	462	14	4	48

Barne Ministerioaren txosteneko datuetan oinarrituta egina (2020)

¹⁰ Justizia Ministerioaren datuen arabera.

Autonomia-erkidegoetan eskuragarri dagoen informazioa ez dago sexuaren arabera berezita, baina Barne Ministerioak sexu- eta lan-salerosketako eta -esplotazioko 48 kasu erregistratu ditu EAEn.

Gainera, EAeko **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ)**¹¹ 2020rako memoriaren arabera, guztira 100 pertsonak jaso zuten **doako justiziaren arloko aholkularitza**; horietatik 38 genero-indarkeriako espedienteengatik, 11 familia barruko indarkeriagatik, 24 pertsonen aurkako delituengatik, 2 ondarearen aurkako delituengatik, 19 sexu-askatasunaren aurkako delituengatik eta gainerakoak beste delitu orokor batzuekengatik.

Hala bada, baliabide ekonomikoek eragina dute justizia-administrazioa sartzeko eta eskubide baten alde egiteko epaitegien aurrean auzitan ibiltzeko aukeran. Ikusi dugunez, emakumezko biktima gehiago daude eta, aldi berean, gizonen bano errenta txikiagoak dituzte; beraz, argi eta garbi muga gehiago dituzte baliabide hori eskuratzeko.

- **Justizia-administrazioaren baliabideak eskuratzeko aukerak erabilzaila gisa. Prestakuntza-maila:**

EAeko pertsona gazteen prestakuntza-maila oso handia da, Espainiako eta 28en EBko batezbestekoa baino handiagoa, hain zuzen. Izan ere, ia gazteen % 90ek gaintitu dituzte bigarren hezkuntzako ikasketak. Ehuneko hori ia antzekoa da emakume zein gizonen artean.

Unibertsitateko ikasketen azpitiko prestakuntza-maila guztietan, bestalde, emakume gradudunen proportzioa gizonena baino zertxobait handiagoa da.

Espainian, bestalde, 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen % 17,3k goiz utzi zuten prestakuntza 2019an, bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez zituztelarik; 28en EBko batezbestekoa % 10,3koa da (% 8,6 emakumeen kasuan eta % 9,6 gizonen kasuan). Zifra horiek handiagoak dira gizonen kasuan. Espainian, gizonen % 21,4k ez dituzte bigarren hezkuntzako ikasketak amaitzen, emakumeen % 13,0ren aldean.

EAeko datuak itxaropentsuagoak dira. Izan ere, eskola-uzte goiztiarraren ehuneko txikiena du autonomia-erkidegoak, hain zuzen ere % 8,8koa 2019an. Emakumeen ehunekoa are txikiagoa da, % 8,0, gizonen % 9,6ren aldean.

Analfabetismo-tasari dagokionez, 29 urtera arte nulua da. Adin horretatik aurrera oso txikia da (emakumeen eta gizonen % 0,1 eta % 0,5 bitartean gutxi gorabehera), 75 urte baino gehiago dituzten pertsonen taldera heldu arte. Emakumeen % 1,8 eta gizonen % 0,6 dira analfabetoak.

¹¹ BLZk, ikuspegi biopsikosozial batetik, biktimizazioaren bizipenen eraginez sortutako premiei erantzuten die, erreparazioarako modurik egokiena aurkitzeko.

Datu horiekin guztiekin, beraz, baieztatu daiteke EAEko prestakuntza-maila ez dela erabakigarria emakumeek justizia-administrazioa erabiltzaile gisa erabili dezaten.

- **Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimentzako baliabideak eskuratzeko aukera**

EAEk askotariko baliabideak ditu indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko, indarkeria zentzurik zabalenean ulertuta, hots, ez soilik genero-indarkeria, familia barrukoa eta sexuala ere baizik, besteak beste. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko informazio- eta arreta-zerbitzu espezializatuaz (SATEVI) gain, bada, halaber, arestian aipatutako Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), bai eta laguntza ekonomiko eta etxebizitzaren alorreko laguntza ugari ere.

SATEVI (900 840 111) emakumeen aurkako indarkeriaren (indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, etab.) biktimentzako telefono bidezko doako arreta-zerbitzua da, eguneko 24 orduetan dabilena, urteko 365 egunetan. Arloko adituek osatzen dute taldea. Biktimei ez ezik, profesionalei eta biktimen adiskide edo senideei ere ematen die aholkularitza, baldin eta zalantzak badituzte edo informazioa eskatu nahi badute. **016** telefonoak bezalatsu (Berdintasun Ministerioak ematen duen telefono bidezko arreta-zerbitzua), SATEVIk ere ez du arrastorik uzten telefonoaren fakturan. Hortaz, oso baliabide segurua da.

Lehen aipatutako **BLZ** Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publikoa da, erabateko esku-hartzea eskaintzen diena delitu-ekintza baten biktima den EAEko pertsona guztiei. Gaur egun, Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (IRSE-EBI) kudeatzen du, eta doako eta aurrez aurreko zerbitzu bat da, indarkeriarekin eta hari aurre egiteko prozesuarekin lotutako edozein alderdiri buruzko orientazio konfidentziala, indibiduala eta pertsonalizatua emateko. Salaketa egon zein ez, orientazio juridikoko zerbitzuak, laguntza ekonomikoak, gizarte-baliabideak, laguntza psikologikoa, zerbitzu sanitarioak eta konpainia ematen dira prozesu horietan guztietan. Halaber, biktimari fisikoki laguntzea (adibidez, epaiketetara eta deklarazioetara) helburu duen programa bat eskaintzen du, ez dezan birbiktimizazioa edo bigarren mailako biktimizazioa delakoa jasan. Zigor-arloko sistema juridikoaren gabezien ondore da hori, biktimengan antsietatea eta defentsa-gabezia eragin baititzake. Era berean, babes-aginduak dituzten biktimei laguntzen die, organo judizialak gizarte-zerbitzuekin koordinatuta, eta epaitegiari etengabeko informazioa ematen dio. Biktimei sistema judizialarekin duten harremanean laguntzeko zerbitzu horrek «zigor-arloko prozesuko biktimaren estatutua» delakoa betetzen dela egiaztatzen du. Gasteizko, Bilboko, Barakaldoko eta Donostiako justizia-jauregietan dago.

BLZren azken memoriaren arabera, 2020an 2.772 pertsonak erabili zuten zerbitzua, funtzio guztietan, eta horietatik 2.165 (hau da, % 78,10) emakumeak ziren. Zerbitzua erabiltzeko arrazoien % 41,6 genero-indarkeria izan ziren, eta % 33,0 familia barruko indarkeria.

Bestalde, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, ekonomia-, prestakuntza- edo gizarte-inguruabar bereziak direla eta zailtasunak badituzte, aukera dute **laguntza ekonomikoak emateko prozedurak** baliatzeko, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte, betiere. Abenduaren 28ko 1/2004 Legeak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurrienak, aurreikusi egin zituen jada laguntza horiek, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduaren bitartez ezarri dira EAEn¹².

Etxebizitza arloko beste laguntza batzuk, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak ematen ditu. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioaren jarraipen-txostenaren arabera (2020koa), biktima zirela egiaztatu zuten 1.077 espediente aktibo metatu ziren, alokairu-erregimeneko etxebizitzak eskatzeko, eta 18 espediente etxebizitza erosteko. Artatutako espedienteak gutxienezko diru-sarreraren baldintzatik eta erroldatze-baldintzatik salbuetsita daude.

Espedienteetatik 44k zuzeneko esleipena izan zuten 2020an eta 14k 2021ean, 3 etxebizitza esleitu zitzaizkion Arabako Foru Aldundiari, 1 etxebizitza Amurrioko Udalarari eta 1 etxebizitza Askabideri (prostituzioarekin lotutako emakumeen baliabidea), eta etxebizitza librean alokatzeko laguntzak ere izapidetu zitzaizkien 6 espedienteri.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko justiziaren arloan indarkeria matxistaren biktimen eskura jarritako beste baliabide batzuk:**

Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-arloko Genero Indarkeriaren arloko Gobernuaren Ordezkaritzak biltzen dituen baliabide autonomikoen atalean jasota dagoenez, BLZz gain, honako hauek ere badaude:

¹² Hemen eskura daitezkeen laguntzak:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2022/genero_indarkeria_biktimak_laguntzak/web01-tramite/eu/.

2021. urtean, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek eta beren kargura senideak dituztenek, 10.224 euroko laguntza jaso zezaketen Eusko Jaurlaritzaren eskutik, tratu txarren egoera horretatik ateratzeko eta independentzia ekonomikoa nahiz gizarteratzea errazteko. Ezinbestekoa da erasotzailearekiko edo ustezko erasotzailearekiko harremana behin betiko amaitu izana.

- Auzitegiko Medikuntzako Institutuetako zerbitzu klinikoen mendeko Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak. Auzitegiko medikuntzako, psikologiako eta gizarte-laguntzako profesionalak barne hartzen dituzten diziplina anitzeko talde psikosozialak dituzte. Inplikaturako profesionalen artean erantzun espezifikoak, espezializatua eta koordinatua ematea da helburua, eta genero-indarkeriaren diagnostiko bat ahalbidetzea, eraso-marka zehatzak bilatze hutsetik haratago.
- Emakumearen aurkako Indarkeriaren EAEko Koordinazio-zentroa. Epaileak babes-agindua igortzen duen puntu gisa funtzionatzen du, eta biktimak eskatzen dituen edo beharrezkoak diren laguntzak bideratzen ditu, komunikazio-sistema telematiko baten bidez, eta, hala, guardiako epaitegitik babes-agindua koordinazio-puntu horretara azkar bidaltzeko aukera ematen du.

3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Sektore juridikoa sektore bereziki feminizatua bada ere, diskriminazio larriak ikus daitezke bereizketa bertikalari dagokionez. Izan ere, justizia-administrazioarekin loturiko lanbideen eskalan gora egin ahala, behera egiten du emakume kopuruak erabakiak hartzeko postuetan. Esan bezala, hori nabaria da batik bat maila goreneko organo judizialetan, hots, Estatu osoan eskumena dutenetan, hala nola Auzitegi Gorena edo Konstituzio Auzitegia.

Adibidez, eta justizia eremuan beharrean politikaren eremuan izanik ere, 2017an Espainiako Zuzenbide Estatuaren 40. urteurrena ospatzeko Diputatuen Kongresua eta Senatua baterako saio batean bildu zirenean, parte-hartzaile guztiak gizonezkoak ziren, Diputatuen Kongresuaren presidentea izan ezik. Horrek aditzera ematen du eremu guztietan nagusi den desparekotasuna, emakumeen presentzia eta parte-hartzeari dagokionez.

Gauza bera ikusten zen Urte Judizialeko Irekieretan jasotako argazkietan, non 2019-2020 ekitaldira arte gizonak bakarrik agertzen ziren.

- **Estatuan eskumena duten organo jurisdikzionalak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia:**

Auzitegi Gorena, Konstituzio Auzitegia, Estatuko Fiskaltza Nagusia eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia nola dauden osatuta aztertuko dugu hurrena. Horiek guztiek Estatuan dute jurisdikzioa.

Auzitegi Gorena goi-mailako auzitegia da ordena guztietan: arlo zibilean, zigor-arloan, administrazioarekiko auzietan eta lan-arloan. Antolaketa-egitura honako hauek osatzen dute: presidentetza (gaur egun gizon batek du), bost sala, lau gizonezko magistratuk eta emakumezko magistratu batek bakarrik zuzentzen dituztenak; kabinete tekniko bat (gizon batek zuzentzen du); eta bost jurisdikzio-arlo, arlo zibila, zigor-arloa, administrazioarekiko auzien arloa, lan-arloa eta arlo militarra, gizonezko eta emakumezko magistratuek osatzen dituztenak, eta modu paritarioan koordinatzen direnak, arlo militarra eta gizon bakar batek zuzentzen dituen sala bereziak izan ezik.

Konstituzio Auzitegia Konstituzioaren interprete gorena da. Konstituzio-bermeen eta -eskubideen arloko auzitegi gorena da. Presidentetzak, presidenteordetzak eta bi salak osatzen dute (biak gizon baten ardurapean), horietako bakoitza 6 magistratuk (emakumezko zein gizonezko) osaturikoa. Bada, 12 horietatik, 3 baino ez dira emakumeak, eta bakar batek ere ez du salako presidente kargua betetzen.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak legezkotasuna, herritarren interesak eta interes orokorra defendatzen ditu. Horrenbestez, kargu hori duenak Fiskaltzaren goi-ordezkaritza eta -buruzagitza hartzen du bere gain. Egun, Estatuko fiskal nagusia emakumezkoa da. Orain paritarioa den Kontseilu Fiskalaren osieran, beste 11 fiskaltza daude, eta horietatik 5 emakumeak dira.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia Espainiako botere judiziala zuzentzen duen konstituzio-organoa da. 20 batzordekidek osatzen dute erakundea, entzute handiko juristen artean izendatutakoak, bai eta presidente batek ere. 20 kide horietatik, 11 gizonak dira, eta 9, emakumeak. Presidentea gizonezkoa da, eta Auzitegi Gorenaren presidentea ere bada. Idazkari nagusia ere gizon bat da.

Euskal Autonomia Erkidegoko bereizketa bertikalari dagokionez, honako alderdi hauek aztertzen dira:

- **EAEen eskumena duten organo jurisdikzionalak:**

Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren osaera aztertuko da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzarena eta probintzia-fiskaltzarena ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia autonomia-erkidegoko goi-mailako auzitegia da, eta atal hauek ditu: arlo zibileko eta zigor-arloko salak, administrazioarekiko auziena eta lan-arlokoa. Jarduneko presidentea gaur egun emakume bat da, eta gobernu-sala bat dago, presidentetza batek (gizon batek), berezko magistratuek eta hautetsiek osatua. Berezko kideen artean, gaur egun 2 gizon eta 3 emakume daude izendatuta, eta kide hautetsien artean 4 gizon eta 2 emakume daude. Gobernu-idazkari postua emakume batek du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak Fiskaltza ordezkatzan du autonomia-erkidegoan. Fiskal nagusiaren kargua emakume batena da 2017tik, eta aurten erabakiko da agintaldia berritu ala ez. Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza probintzia-fiskaltzatan egituratzen da lurralde historiko bakoitzean. Araban fiskalburua gizonezkoa da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan emakumeek dute kargu hori.

- **Justizian eskumena duten Eusko Jaurlaritzako organoak:**

Eusko Jaurlaritzako **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila** da legegintzaldi honetan EAEko justizia-administrazioan eskumenak dituen erakundea, eta gaur egun sailburu kargua duen emakume bat du buru. Hiru **sailburuordetza** egituratzen da: Justizia Sailburuordetza (emakume bat buru eta 3 gizonezko zuzendari nagusi), Gizarte Politiketako Sailburuordetza (emakume bat buru, 2 emakumezko zuzendari nagusi eta gizonezko zuzendari nagusi bat) eta Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako Sailburuordetza (gizon bat buru eta emakumezko zuzendari nagusi bat). Sailaren gainerakoa 4 zuzendaritzak osatzen dute (Kabinete, Komunikazio, Zerbitzu eta Gazteriak): emakumezko 3 zuzendari eta gizonezko zuzendari 1. Orain arte, azterketa horren bidez egiaztatu da EAEko organo ofizial horien egoeraren aurrerapena oso positiboa izan dela parekidetasunerantz, duela urte batzuetako egoerarekin alderatuta, eta, batez ere, Estatuan oraindik ere baden segregazio bertikalari dagokionez.

- **Justiziaren eremuko profesionalen elkarte eta elkargoak:**

Legelarien Euskal Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietako Abokatuen Elkargoak ordezkatzeko eta koordinatzeko dituen organoa da. Gobernu-taldea 13 kidez osatuta dago 2022an, eta horietatik 5 dira emakumeak. Egungo karguak honela banatzen dira: presidente bat, 2 presidenteorde (emakume bat eta gizon bat), 8 bokal (horietatik 3 emakumeak), gizoneko bokal idazkari bat eta gizoneko diruzain bat. Parekidetasuna dagoela esan daiteke, emakumeen ordezkariak ez baita % 40tik jaisten.

Lurralde historikoetako **Abokatuen Elkargoei** dagokienez, honela daude osatuta beren gobernu-kontseiluak:

Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuaren gobernu-batzarra honako hauek osatzen dute: gizoneko dekanu batek, emakumezko dekanorde-diputatu batek, emakumezko liburu-zain-diputatu batek, gizoneko diruzain batek, gizoneko idazkari batek, 7 diputatuk (gizoneko 5 eta emakumezko 2). 12 pertsona guztira, eta horietatik 7 dira emakumeak. Horrenbestez, parekidetasuna dago haren osakeran.

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren gobernu-kontseilua honako hauek osatzen dute: gizoneko dekanu batek, gizoneko diruzain batek, gizoneko idazkari batek, emakumezko 6 diputatuk eta gizoneko 5 diputatuk. Hau da, 14 pertsona horietatik 6 dira emakumeak. Kasu horretan ere parekidetasuna dago. Aipatu behar da 2020an I. Berdintasun Plana onartu zuela eta Emakume Abokatuen Batzordea dutela.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren gobernu-kontseilua honako hauek osatzen dute: emakumezko dekanu batek, gizoneko dekanorde batek, gizoneko idazkari batek, emakumezko 7 diputatuk eta gizoneko 6 diputatuk eta emakumezko idazkari batek. Emakumeen ordezkariak % 50etik gorakoa da.

Abokatutzako profesionalen hiru elkargo horietan parekidetasuna dagoen arren, horietako batean bakarrik betetzen du kargu gorena emakume batek. Errealitate hori ez da oso desberdina Espainiako Estatuko gainerako lekuetako aldean; izan ere, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren arabera, egun dauden 83 abokatu-elkargoetatik 16tan soilik dute emakumezko dekanu bat buru.

Euskal Herriko Notario Elkargo Txiki Prestua: Notarioen lanbidea ordezkatu eta defendatzeko du. Zuzendaritza batzordea 6 pertsonak osatzen dute: gizoneko dekanu bat, emakumezko dekanorde bat, gizoneko diruzain bat, emakumezko idazkari bat eta gizoneko 2 zentsore. Beraz, kide guztietatik 2 baino ez dira emakumeak. Hortaz, ordezkariak ez da orekatua.

- **Unibertsitate-esparruan parte hartzea:**

Hiru unibertsitate daude Euskal Autonomia Erkidegoan, bi pribatu eta publiko bat. Unibertsitate horietako bik baino ez dituzte lege-zientziekin loturiko gradu-ikasketak: Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak.

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) da unibertsitate publiko bakarra, eta gradu-ikasketen artean dago Zuzenbide gradua izen bereko fakultatean. Bi campusetan dago: Bizkaikoan eta Gipuzkoakoan.

Unibertsitateko gobernu-taldea honako hauek osatzen dute: emakumezko errektore batek, gizonetzko idazkari nagusi batek, gizonetzko 11 errektoreordetzak (horietako 6tan emakumeak dira buru), eta emakumezko gerente batek. 14 lagunek osatzen dute taldea; haietatik 7 dira emakumeak, eta erantzukizuneko handiko karguak ere badituzte.

Bestalde, Zuzenbide fakultateko dekanato-taldea gaur egun honako hauek osatzen dute: emakumezko dekanato bat, gizonetzko 4 dekanorde, emakumezko 2 dekanorde eta emakumezko idazkari akademiko bat, eta administrazio-taldearen barruan, beste emakumezko 2 idazkari.

Esan daiteke bi egituretan berdintasunezko banaketa dagoela.

Deustuko Unibertsitatea unibertsitate pribatua da, konfesionala, zientzia sozialetan, ekonomikoetan eta juridikoetan espezializatua. Errektoretzaren gobernu-taldea honako hauek osatzen dute: gizonetzko errektore bat, gizonetzko 7 errektoreorde (horietatik 2 emakumeak dira) eta emakumezko idazkari nagusi bat. Kasu horretan, beraz, ez dago ordezkari-tza orekatua.

Hala ere, Unibertsitate horretako Zuzenbide fakultateak dekanato talde bat du: emakumezko dekanato bat, emakumezko 2 dekanorde eta gizonetzko dekanorde bat, fakultateko emakumezko idazkari bat, saileko gizonetzko 3 zuzendari eta gizonetzko kudeatzaile bat. 9 pertsonetatik 4 dira emakumeak. Kasu horretan ordezkari-tza orekatua da, emakumeen ordezkari-tza ez baita % 40 baino txikiagoa.

- **Bestelakoak:**

- **Espainiako Jurisprudentzia eta Legearen Errege Akademia¹³.**

Espainiako Jurisprudentzia eta Legearen Errege Akademiaren helburuak Zuzenbidearen eta haren zientzia osagarrien ikerketa eta praktika dira, eta, gainera, Espainiako legeriaren erreformetan eta aurrerapenetan lagundu behar du.

Akademia gizonetzko 32 akademikok eta emakumezko 5 akademiko osok osatzen dute.

¹³ <http://www.rajyl.es/>

- **Zuzenbideko Euskal Akademiaren**¹⁴ Zuzendaritza Batzordea, legezientziak eta, bereziki, EAEko zuzenbidearekin zerikusia dutenak aztertu, ikertu eta zabaltzeko xedea duena, 17 bazkidek osatzen dute. Kasu horretan emakume bakarra dago batzordean.

- **Emakumeen parte-hartzea sektoreko elkarteetan:**

Emakumeen artean asoziazionismoa bultzatzea da beren partaidetza sustatzeko tresnarik onenetako bat.

Emakumeen elkarteek egiten duten eginkizuna ezinbestekoa da beren garapen sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan laguntzeko, baita behar-beharrezkoa ere emakumeak ahalduntzeko.

Justiziaren eremuan badira emakume juristen eta epaileen elkarte batzuk. Elkarteon azken xedeak dira emakumeen eskubideen alde egitea, diskriminazioaren aurka egitea eta emakumeen eta gizonen erabateko berdintasuna erdiestea.

Estatuko elkarerik garrantzitsuenetako batzuk dira Themis, Emakume Juristen Elkarte, Emakume Epaileen Espainiako Elkarte (AMJE) eta Emakume Juristen Espainiako Elkarte.

Emakumeen, Feminismoaren eta Generoaren Ikasketak aldarrikatzen dituzten unibertsitate- edo ikerketa-elkarte eta -sareei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira: Emakumeen Ikasketen Unibertsitate Elkarte (AUDEM), Emakume Ikertzaileen eta Teknologoen Elkarte (AIMT), Antigona ikerketa-taldea (eskubideak eta gizarte genero-ikuspegiarekin) eta Konstituzio Zuzenbidearen Sare Feminista.

Azterketa honetatik ondorioztatu daiteke justizia-administrazioaren arloan ezberdintasun handiak daudela Estatuan eskumenak dituzten eta EAEn lurralde-eskumena duten organoen artean. Lehenengoetan, gizonen gehiago izugarria dago, Estatuko Fiskaltza Nagusian izan ezik, non ordezkariak orekatua baita. Bigarrenetan, berriz, emakume gehiago daude, salbuespenak salbuespen.

¹⁴ <http://www.avd-zea.com/euskara/index.php>

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Aurreko ataletan egiaztatu ahal izan denez, eremu judizialeko genero-desparekotasunak bilakaera positiboa izan du; hala ere, oraindik ere desoreka larriak daude emakumeen bizitza- eta lanbide-ibilbidean. Horrek esan nahi du, batetik, genero-estereotipoak oinarri hartuta hautatzen dutela prestakuntza eta, bestetik, langabezia-tasa eta lan-prekaritate handiagoak dituztela laneraterakoan, eta gutxiago parte hartzen dutela erabakiak hartzeko postuetan.

Horrek guztiak esan nahi du soldata txikiagoak jaso behar dituztela baliabide pribatuak eskuratu ahal izateko, eta lanbide-karreran gora egiteko zailtasunak dituztela; izan ere, espezializazioetan prestatzeko baliabide ekonomiko gutxiago dituzte eta denbora gutxiago dute familia- eta etxe-zaintzei gehiegizko denbora eskaintzen dietelako. Izan ere, balio txikiagoa ematen zaie gizarteak emakumeei esleitu dizkien lanei. Nolanahi ere, emakumeak nagusi dira lege-zientziei loturiko graduetan, eta emaitza akademiko hobeak lortzen dituzte, gainera.

Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko presidentek dioen bezala¹⁵, «emakumeak enpresa-munduko edo abokatu-bulego handietako kontseilarien edo zuzendarien zerrendan gutxiengoa edo are salbuespena izatea, emakumea erantzukizun handiagoko lanpostuetan sartzea geldotzen dutenak lasaitzeko aitzakia bat izatetik urrun, lotsagarria bihurtzen ari da».

Horrela, Abokatutzaren Kontseilu horrek bultzatutako ikerketa batean, eta Metroscopiaren inkesta batean oinarrituta, Espainia osoko 2.000 abokaturen lagin adierazgarri batekoa, emakumezko abokatuen heren batek adierazi zuen emakume izate hutsagatik tratu desberdina jaso zuela bere lankide gizonengandik. Profesional horiek generoagatiko diskriminazioa sentitu zuten beren karreraren zehar, eta erdiek baino gehiagok adierazi zuten diskriminazio ohikoena zela gutxietsiak izatea, beren fisikoagatik edo itxuragatik ezikiak edo epaituak sentitzea eta mespretxuzko eta larderiazko iruzkin errepikatuak jasotzea.

Hori guztia gertatzen den lan-testuinguruan, emakumeak, oro har, eta emakumezko legelariak, bereziki, oraindik ikusezin bihurtzen dira edo haien irudi estereotipatu bat transmititzen da.

Jarraian, egoeraren analisiaren dimentsio batzuk jaso dira genero-ikuspegitik:

- **Emakume juristen irudia komunikabideetan**

Komunikabideek eta publizitateak emakumeen irudi estereotipatua helarazten dute askotan, eta arinkeriatan ibiltzen dira beren janzkera edo ezaugarri fisikoak direla medio; hala, gutxietsi egiten dira beren gaitasun

¹⁵ Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren 2021eko martxoaren 8ko artikulua: [El "bochorno" de la desigualdad: solo un 20% de mujeres en la cúpula de la abogacía - Espainiako Abokatutza \(abogacia.es\)](https://www.abogacia.es/bochorno)

profesionalak. Emakumeak mespretxatzen dituzte, eta genero-rolak eta -estereotipoak iraunarazten dituzten. Hizkera sexista nagusi denez, halaber, gero eta ikusezinago bihurtzen dira.

Arlo juridikoan badira errealitate hori aditzera ematen duten adibide batzuk. Emakumeen Irudiaren Behategiaren 2014ko txostenaren arabera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira jo zuen Emakumearen Institutuak (lehen hala deitzen zen, baina orain Emakumeen Institutua da), «Conócela» izeneko ateak zabaltzeko eguna zela eta, non emakumezko gorputzaren irudi piktoriko bat erabili baitzen apeu gisa.

Prentsa idatziak ere lagundu du emakumearen irudi estereotipatua zabaltzen. Zehazki, *El País* egunkarian, Alaya epaileari buruzko «Estampa de la juez Alaya» izeneko artikulua batean honako esaldi hau agertzen zen: «Ni sus vestidos, ni su cutis, ni su peinado, ni sus medias, ni sus pasos regulares permiten asimilarla a un funcionario». Ez da inondik ere aipatzen bere balio profesionala, ezta epaile gisa egiten duen lana ere. Bere irudiaz, janzkeraz eta itxuraz baino ez da mintzo artikulua.

Epaile berari buruz, *ABC* egunkariak «Juez Mercedes Alaya, ha nacido una estrella» deritzon artikulua bat argitaratu zuen, bai eta esan ere «...no sólo es guapa, sino que también es lista. Y se arregla mucho». Artikuluan janzkera eta balia profesionala uztartzen dituzte, eta honako hau esaten dute berari buruz: «...hace una demostración de poder también con su vestimenta».

Horiez gain, komunikabideek emakumeen irudi estereotipatua ematen dutela berresten duten beste hainbat adibide aipatu litezke. Emakumeak ikusezin egiten dituzte, gainera, esapide maskulinoak erabiltzen dituzten eta, «juez», «abogado» edo «procurador», esaterako.

- **Komunikabideen eta publizitatearen jarrera genero-indarkeria eta beste indarkeria-molde batzuekiko.**

Komunikabideek funtsezko eginkizuna dute genero-indarkeriaren aurkako borrokan eta, batez ere, hura ikusgai egiten. Izan ere, arazoaren berri ematen diete herritarrei. Horregatik da hain garrantzitsua genero-indarkeriari nahiz beste indarkeria mota batzuei buruzko berriak errespetuz tratatzea.

Komunikabideak eta publizitatea arinkeriatan ibiltzen badira genero-indarkeriarekin, edo emakumeen aurkako indarkeria berekin duten jokabideak bidezkotzen badira, gutxietsi egingo da gizarteko arazo larri bat, nagusi den kultura patriarkalean sorburua duena, eta emakumeak emakume izateagatik diskriminatzen dituena.

Azken urteotan, irmo eusten ari zaizkio Espainiako komunikabideak borroka horren gaineko konpromisoari; izan ere, protokoloak eta estilogidak dituzte biktimen duintasunari kalterik egin gabe eta haien intimitatea errespetatuz informatzeko. Hala eta guztiz ere, asko dago egiteko oraindik, batik bat emakumeen gorputza apeu sexual gisa

erabiltzen duten, emakumeen aurkako indarkeria mota oro sustatzen duten eta beren adimen-gaitasunak ikusezin bihurtzen dituzten teleailei eta publizitateari dagokienez.

Bai Emakumeen Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokiak, bai Begira Publizitate eta Komunikazio ez-sexista Erabiltzeko Aholku Batzordeak (Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako komunikabideen eta publizitate-euskarrien bidez ematen den publizitatearen gaineko aholkularitza eta analisirako organoa den aldetik) biktimei tratamendu duina eta errespetuzkoa ematen ez dieten kasuak salatzen dituzte.

- **Genero-indarkeria eta beste indarkeria matxista mota batzuk pairatu dituzten emakumeen kontrako erakunde-indarkeria**

2018an epaitegietako indarkeria instituzionalari buruz egin zen azterlanean, sexu-indarkeriagatiko prozeduren esparruan, honela definitzen zen genero-indarkeria instituzionala: «Prozesuari ez dagokion zati bat, baizik eta operadore juridikoek burutzen dituzten izaera indibidualako jarduerak (nahiz eta sistematikoak izan daitezkeen) sakon markatuko luketena. Ekintza horiek prozesuan esku hartzen dutenek bakarrik egin ditzakete biktimen aurka, eta borondatezkoak eta prozesua ebazteko beharrezkoak ez diren jokabideak izango lirateke» (Carla Vall, 2018)¹⁶.

Legeriari dagokionez, genero-indarkeria instituzionala alde batera utzi zen Espainian aplikatu behar ziren horri buruzko lege-testu gehienetan. Hala eta guztiz ere, erreferentzia batzuk daude nazioarteko legerian, eta esanguratsuen da Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena), zeinak, 35. artikuluan (Estatuaren betebeharrak eta behar bezalako eginbidea), honako hau ezartzen baitu: «Alderdiak ez dute emakumearen aurkako indarkeria-ekintzarik egingo, eta ziurtatuko dute agintariek, funtzionarioek, agenteek eta estatuko erakundeek, bai eta Estatuaren izenean jarduten duten gainerako eragileek ere, betebeharrak horren arabera jokatu dutela».

Biktima batek egiten duen prozesuko alderdi zailenetako bat, genero-indarkeriaren bat pairatzen duen unetik, polizia-sistematik eta justizia-sistematik salataile/biktima gisa igarotzea da. Gainera, une horretan, emakumeek zuzenean pairatzen dute erakunde-indarkeria hori; esparru sinboliko izateari utzi eta eragin argi eta zuzeneko du.

Justiziaren eremuko genero-indarkeria instituzionala ekintzaren edo ez-egitearen bidezkoa izan daiteke. Bigarren kategoria horretan, biktimak babesteko justizia-administrazioaren eta haren eragile guztien (polizia-kidegoak barne) ez-egiteaz ari gara.

¹⁶ [Violència institucional i revictimització en el sistema judicial i de denuncia de violències sexuals](#)

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (BJKN)¹⁷ datuen arabera, 2021ean, batez beste, Espainian biktimek eskatutako babes-aginduen % 29 ukatu dira; EAEn, berriz, ukatutako babes-aginduak eta -neurriak % 41 dira. Datuek agerian uzten dutenez, ez da gauza bera segurtasun-neurriak lurralde batean edo bestean eskatzea, eta lurralde horren barruan, ezta leku batean edo bestean ere, zeren eta dagokion eremuko barruti judizialak erabakitzen du babesak behar den ala ez. Indarkeria instituzional horren lehen adierazpen argia eta zuzenekoa da hori, eta emakumeak babesik gabe uzten ditu salaketa jarri ondoren, beren bizilekuaren arabera soilik, eta ez gertakarien larritasunaren edo dagoen arriskuaren arabera.

Epaitegietako eta polizia-etxeetako indarkeria horren egileak askotarikoak dira, eta, beraz, epaileez edo polizia-kidegoetako agenteez gain, prozedura judizial batean biktimekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten hainbat agente daude, eta horiek, behar bezalako ardurarekin eta ezagutzarekin jarduten ez badute, genero-indarkeria instituzional horren parte izan daitezke.

Genero-indarkeria instituzionalak hainbat adierazpen ditu epaitegietan, aztertutakoez gain. Zerrenda zehatza egiteko asmorik gabe, horien zerrenda bat bildu dugu, adierazpen ohikoenak direlako:

Biktimaren estereotipoak; biktimei ematen zaien sinesgarritasunari zentzu askotan eragiten diote. Estereotipo nagusi baten arabera, biktimak gezurretan ari dira, eta, ondorioz, biktimen portaera guztiak zalantzan jartzen eta epaitzen dira, biktimologiari buruzko inolako ezagutzarik gabe eta genero-ikuspegia kontuan hartu gabe. Horrela, biktimen portaera neurtzen da biktima idealaren figura oinarri hartuta, eta biktima ez bada ez-aktiboa, ez-mendekatia eta ez-protagonista eta ez-oneratu, zalantzan jartzen da haren sinesgarritasuna.

Justiziaren funtzionamendu txarra: baliabiderik ezaren eraginez, baina baita agente judizialen ardurarik ezaren eta batzuetan zuzenean gaizki egitearen eraginez ere, hainbat prozesu arrazoirik gabe luzatzen dira; biktimei ez zaie informaziorik ematen, zeinek ez baitakite prozeduraren zein unetan dauden, edo zer espero, eta, horrez gain, indarkeria instituzionaleko gertakari zuzenekoez gain, mespretxuzko iruzkinak jasotzen dituzte edo epaileek edo poliziek ez diete sinesten.

Biktimen babesgabetasuna: lehen esan dugun bezala, babes-agindu asko ukatzen dira, eta modu desorekatuan; gainera, oro har, justiziak eta haren eragileek jokabide arduragabea dute biktimaren babesean, eta babes-sistema ez da osoa eta ez da nahikoa. Kasu gehienetan, erasotzailearen portaera mugatu beharrean, biktimari lekualdatzeko muga ipini eta bitzta baldintzatzen zaio.

¹⁷ <https://www.poderjudicial.es/cgpi/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Actividad-del-Observatorio/Datos-estadisticos>

Genero-ikuspegirik eza indarkerien kontzeptualizazioan eta zuzenbidearen aplikazioan. Hori, egia esan, zeharkako adierazpen bat izango litzateke, eta, prozedura judizialean, agenteen jardunean eta aplikatu behar diren legeen idazkeran edo epaien oinarrietan nabarmentzen da.

- **Genero-estereotipoak**

Genero-estereotipoak gizonei eta emakumeei buruz aldez aurretik pentsatutako ideia multzoa dira. Horiek direla eta, rol ezberdinak ematen zaizkie batzuei zein besteei, genero-rolak, hain zuzen ere. Ez dute oinarrizko arrazionalik; aitzitik, jaiotzatik hasitako sozializazio-prozesu desberdinduan dute jatorria.

Hala bada, nagusitasuna, oldarkortasuna, botere-guneak betetzeko premia, indarra, lehiakortasuna, arrazionaltasuna, arrakasta eta beren buruarenganako konfiantza esleitzen zaizkie gizonei; emakumeei, berriz, mendekotasuna, zaintzeko abilezia, sentimentalismoa, sena, kaskarinak izatea eta erantzukizunak gain hartzeko eta botere-guneak betetzeko beldurra esleitu izan zaizkie betidanik.

Sozializazio desberdindu horren, hezkuntza partzialaren eta familiaren, lagunen, publizitatearen eta ingurune sozialaren eraginaren ondorioz, emakumeek muga handiak dituzte, bai kanpoan bai norberak inposatuak, ikasketak aukeratzekoan lehenbizi eta lana ondoren.

Bereizketa bertikalak genero-estereotipo horietan du sorburu, besteak beste. Hautaketa-prozesuak egiten dituzten pertsonak ezin dira horietatik libratu; izan ere, emakumeek gizonek bezainbesteko gaitasun eta trebetasun teknikoak eta profesionalak izanagatik ere, emakumeek ingurune profesionaleko erantzukizunak baino zaintza-lanak nahiago dituztelako usteek edo erabakiak zein agintea hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak ez dituztelako sinesmenek indar handiagoa dute emakumeak, berez, edozein lan egiteko gai izatea baino.

Justizia-administrazioan, esparru feminizatua izan arren, ez dago emakumerik boterezko erakundeetan eta erabakiak hartzekoetan. Hori batez ere estatu mailan gertatzen da; EAEn, berriz, ikusi den bezala, emakumeek pixkanaka okupatzen dituzte eremu horiek.

Nolanahi ere, sistema judizialean ere estereotipoek eusten zaiela uste da; izan ere, gizonezko eta emakumezko epaileak gizarteko gainerakoen aurreiritzi berberekin hezten dira, eta hori azkenean agerian geratzen da Women's link Worldwide gisako erakundeek mundu mailako Genero eta Justizia Behatokian jasotzen dituzten epai polemikoetan. Kasu polemiko horietako bat Gasteizko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegian gertatu zen 2016an. Bertan, demandatzaile batek bikotekide ohia salatu zuen tratatu txarreatatik eta sexu-abusuengatik, eta emakumezko epaileak galdetu zion ea «hankak ondo itxi zituen».

Aurreiritzi horiei aurre egiteko modua, jakina, operadore judicial guztientzat berdintasunaren arloko prestakuntza areagotzeko beharrean datza; beren lanbidean genero-ikuspegia txertatzen irakatsi behar zaie.

- **Lan-banaketa eta zaintzetan jardutea**

Emakumeak masiboki aspaldi laneratu ziren arren, gizonak ez dituzte etxeko ardurak beren gain hartu, ez behintzat nahi zen adina. Horren ondorioz, emakumeek etxeko eta zaintzako lan gehienak egiten dituzte eta, hartara, albo batera utzi behar dituzte karrera eta igoera profesionala. Denbora gutxiago dutenez, aukera gutxiago dituzte oposizioak prestatzeko nahiz espezializazio juridikoko ikastaroak egiteko.

Norbere buruarentzako denborari uko egiteak, igoera profesionalean ez ezik, norbere buruaren zaintzan eta aisialdi-jardueretan ere du eragina.

2021ean eguneratutako INEren «Emakumeak eta Gizonak Spainian» argitalpenaren datuen arabera, aurreko urtean emakumeen % 46,9k adierazi zuen lanaldi partzialean lan egiten zuela mendeko pertsonak zaindu behar zituelako eta seme-alabak zaintzeko zerbitzu egokiak ordaindu ezin zituelako. Gizonak lanaldi partzialean lan egiteko alegatzen duten lehen arrazoia ere horixe bada ere, kontua da gizonak ez dutela ia lanaldiaren formula erabiltzen (2021eko laugarren hiruhilekoan, Spainian haurrak edo heldu gaixo eta ezgaituak edo adinekoak zaintzeagatik lanaldi partzialean lan egiten zuten pertsonen % 5 baino ez ziren gizonak).

Bestalde, EAEko 2018ko Denbora Aurrekontuen Inkestak honako hau erakusten du:

Lana duten pertsonen eguneko batez besteko denbora, dedikazio motaren eta sexuaren arabera, EAEn (ordutan)	Gizonak	Emakumeak
Beharrian fisiologikoak	11:30	11:41
Lana eta prestakuntza	05:36	04:38
Etxeko lanak	01:11	02:14
Etxeko pertsonen zaintza	0:31	0:53
Bizitza soziala	0:40	0:36
Aisia aktiboa eta kirolak	01:21	01:04
Aisia pasiboa	01:57	01:42
Joan-etorriak	01:14	01:12

EUSTAT: Denbora Aurrekontuei buruzko Inkesta (2018)

Horrek baieztatu egiten du emakumeek ia denbora bikoitza ematen dutela etxeko lanetan eta zainketekin zerikusia duten lanetan, eta horrek esan nahi du denbora kentzen dietela beste jarduera batzuei, hala nola profesionalari eta aisialdikoei. Halaber, emakume gehiagok eskatzen dituzte lan-utzialdiak eta lanaldi-murriztapenak. Horren eraginez, karrera profesionalean igotzeko aukerak txikitu egiten dira.

Pentsa liteke, beraz, lan horien banaketa desberdinak lotura hertsia duela justizia-administrazioan emakume gutxiago egotearekin, sektore pribatuan zein publikoan.

- **Androzentrismoa sistema judizialean**

Mundua ia betidanik eraiki da ikuspegi androzentriko batetik. Gizona, beraz, beti izan da gauza guztien erdigunea, ezagutza-esparru guztiak, gizartea, kultura, politika eta boterea neurtzen diren eredu, alegia.

Gaur egungo mundua horren arabera eraiki da, eta gizarte patriarkalak eredu hori du oinarri. Emakumeak azpian jartzen dituen eta agintea gizonei ematen dien gizarte-antolaketako sistema da patriarkatua, botere-harreman desberdinak berekin dakartzana eta emakumeak erabakiak hartzetik kanpo uzten dituen.

Hasieran esan dugun legez, eta ondorengo genero-analisiak berresten duen bezala, justizia munduaren ikuskera androzentrikoaren eraginpean dago, eta zuzenbideak (justizian oinarritutako arau multzoak) ere horren eragina jasotzen du.

Gizonen presentzia eta pentsamendu eta arrazoibide androzentrikoa estamentu profesional guztietan iragazten dira; hortaz, gizonek diseinatu badute sistema juridikoa eta gizonak hartu badira horren eredu gisa, emakumeek nekez parte hartu dezakete berdintasunez justizia-administrazioaren arlo ezberdinetan.

Beraz, gizon baino emakume gehiagok ikasi arren lege-zientziak, emakumeek ez dute gizonak bezainbat lan egiten sektore horretan, eta ez dira berdin iristen hierarkia juridikoaren posturik gorenetara. Horrenbestez, ez dago emakumerik erabakiak hartzeko organoetan, edo gutxiengoa dira, bestela.

Epaitegien eta auzitegien funtzionamenduak, hartara, ikuspegi androzentriko horren eragina du; araudia ezartzeaz eta interpretatzeaz arduratzen direnek ikuskera partziala izango dute abiapuntu, berdinzalea beharrean, eta horrek kalte egiten die sistema judiziala erabiltzen duten emakumeei, bigarren mailako herritartzat jotzen dira eta.

Botere judizialarekin zerikusia duten erabaki-organoetan emakumeak pixkanaka sartzeari errealitate bihurtzen hasi da, baina horren ondorioak oraindik ez dira nabari.

lido horretako beste urrats bat 2021eko martxoan Errege Dekretu bidez onartutako **Espainiako Abokatuzaren Estatutu Orokor berria**. Horren 77. artikuluan, profesional horien elkargoetako gobernu-organoetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eragingarrirako neurriak sartzeari sustatzen da. Gainera, 97. artikuluan, behar diren arau-aldaketak proposatzen dizkie organo eskudunei, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzko legeria organikoko eskubide onartuen erabateko eraginkortasuna lortzeko eta abokatutzako profesional guztien familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko.

Azken batean, oraindik nagusi den androzentrismoa behin betiko baztertzeko, ezinbestekoa da arauak genero-ikuspegitik egitea eta aplikatzea, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako lege organikoak ezarritakoa betetze aldera, hots, berdintasun-printzipioa zuzenbideko printzipio orokor bihurtzea. Lege horren 4. artikulua honako hau ezartzen du: «Emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa antolamendu juridikoaren barnean hartzen da, eta, horrenbestez, arau juridikoak interpretatu eta aplikatzerakoan bete behar da».

HIZKERA JURIDIKO EZ-SEXISTA

XIX. eta XX. mendeetako hizkera juridikoaren ezaugarri nagusia androzentrismoa izan zen. Jasone Astola Madariaga¹⁸ UPV/EHUko Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleak testu konstituzionalen androzentrismoa aztertu du, eta ondorio hau atera du: XIX. mendeko testuetan termino maskulinoak unibertsaltzat hartu badaitezke ere, gizonezkoak soilik izendatzeko erabiltzen ziren. Izan ere, emakumeak ez ziren izendatutako kolektiboetako kide, eta ezin ziren izan ez hautesle, ez hautagai, ezin zituzten kargu publikoak bete, eta, beraz, ezin zuten herritartasunaren onurez gozatu.

« *El lenguaje jurídico no sexista, principio fundamental del lenguaje jurídico modernizado del siglo XXI*» artikulua VII. apartatuan, Mercedes Bengoechea Bartolomé hizkera juridiko ez-sexista lortzeko proposamen batzuk jasotzen ditu.

¹⁸ ASTOLA MADARIAGA, J (2008): «El género en el lenguaje jurídico: Utilización formal y material», *Feminismo/s* 12, abendua, 34-35. orr.

2.5. BERDINTASUN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	TRESNA JURIDIKOAK
EAEko botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte, erabakiak hartzeko esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko, guztiek gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela.	3.9 artikulua. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.
Tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersektionalaren integrazioa: b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko , irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilita justifikatzeko modukoa denean.	3.1 artikulua. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.
Arreta eta aholkularitza sozio-juridikoaren bermea: EAE administrazio publikoek, beren politikak eta programak diseinatu eta ezartzerakoan, kontuan hartuko dituzte guraso bakarreko familiek dituzten behar espezifikoak, eta behar diren neurri juridiko eta ekonomikoak sustatuko dituzte inguruabar horiengatik prekaritate ekonomiko edo sozialean dauden pertsonen baldintzak hobetzeko.	45.2 eta 56. artikulua. 4/2005 Legea
Operadore juridikoei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea. Autonomia-erkidegoko Administrazioak lagundu egingo du, bere eskumen-eremuan, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematen epaileei, fiskalei, Justizia Administrazioko langileei, espetxe eta adingabeen zentroetakoei barne, eta gainerako eragile juridikoei.	53.3 artikulua. 4/2005 Legea
Abokatutzako profesional horien elkargoetako gobernu-organoeak gizonen eta emakumeen berdintasun eraginkorra sustatzen duten neurriak sartzeko saiatu beharko dute. Organo eta administrazio eskumendunek abokatutzako profesional guztien familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko beharrezkoak diren ekintza guztiak har ditzaten bultzatuko da. Halaber, behar diren arau-aldaketak proposatu ahalko dizkie organo eskudunei, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzko legeria organikoko eskubide onartuen erabateko eraginkortasuna lortzeko.	77. eta 97. artikulua. 135/2021 Errege Dekretua, martxoaren 2koa, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duena.
Babes judizial eragingarria: 1. Edozein pertsonak eskatu ahal izango die auzitegiei emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidearen babesa, Konstituzioaren 53.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, baita ustez diskriminazioa gertatu den harremana amaitu ondoren ere. 2. Eskubide horren defentsari buruzko prozesu zibiletan, sozialetan eta administrazioarekiko auzien prozesuetan esku hartzeko gaitasuna eta legitimazioa interes legitimoa duten pertsona fisiko eta juridikoei dagokie, prozesu horiek arautzen dituzten legeetan zehaztutakoei. 3. Pertsona jazarria izango da legitimatu bakarra sexu-jazarpenagatiko eta sexuaren ziozko jazarpenagatiko auzietan.	3/2007 Lege Organikoaren 12. artikulua.

<p>Edozein motatako bereizkeria betikitzen duten oztipoak kentzea, enplegu publikora iristean eta karrera profesionala garatzerakoan.</p> <p>Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egitea ahalbidetzea, sustapen profesionalari kalterik egin gabe.</p> <p>Berdintasunari buruzko prestakuntza sustatzea, nola enplegu publikora iristean, hala karrera profesionalean.</p>	<p>3/2007 Lege Organikoaren 51. artikulua, a, b, c, d apartatuak.</p>
<p>Ekintza judizialaren erantzuna hobetzea indarkeria matxistaren arretan:</p> <p>VM.5.1.6. Emakumeen giza eskubideak babesteaz eta bermatzeaz arduratzen diren erakundeen prestakuntza espezializatua eta sentsibilizazioa bultzatzea, eta egon litezkeen genero-estereotipoak desagerraraztea.</p> <p>VM.5.1.5. Talde profesionalen erantzun eta tratu instituzionalaren koordinazioa hobetzea.</p> <p>Atzerian genero-indarkeriaren biktima diren espainiarrei laguntza juridikoa emateko finantzaketa-lerro bat sortzea, Atzerian dauden Espainiarren eta Kontsul-gaietako Zuzendaritza Nagusiarri transferentzia eginez.</p> <p>VM.5.2.1 Polizia-jardueraren eta jarduera judizialaren ebaluazioa bultzatzea, 1/2004 Lege Organikoaren aginduek betetzeari dagokionez, esku hartzen duten eragile guztien parte-hartzea ziurtatuz, biktimen ikuspegia berrera.</p>	<p>EGBEPE 2022-2025, LVM5</p>
<p>Emakumeen irudia EAEko komunikabideetan</p> <p>Giza duintasuna errespetatzea sexuaren arabera, ez objektu sexual edo aberasteko produktu huts gisa. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duten edukiei.</p> <p>Edukietan genero-ikuspegia sartzea, hizkera ez-sexista erabiltzeaz gain, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta bi sexuen presentzia orekatua eta askotariko irudia bermatzeaz gain.</p> <p>Lehentasuna ematea emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria bere adierazpen guztietan prebenitzeko helburua duten kanpaina instituzionalei beren publizitate-espazioetan.</p> <p>Administrazioek orobat sustatu behar dute, autorregulazio-arauen edo bestelako formulen bidez, eduki sexistarik edo emakumeen duintasunaren kontrarik ez agertzea Interneten, sare sozialetan, bideojokoetan eta informatika-sistemetan.</p>	<p>26. artikulua. 4/2005 Legea.</p>
<p>Hezkuntza-politika publikoek hezkidetzak bultzatuko dute. Lege honen ondorioetarako, hezkidetzak da sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertzeko dituen garapen integralean, diskriminazio mota ororen bazterketan eta generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionalaren bermean oinarritutako hezkuntza-eredua. Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatuko da hezkuntza-maila eta -etapa guztietan, barne hartuta haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxilergoa, lanbide-heziketa eta helduentzako irakaskuntza; eta dimentsio guztietan: curriculumak, antolamendua eta beste batzuk.</p> <p>Oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzean hezteak.</p> <p>Emakumeek eta gizonen hezkuntzarako eskubide berrak izan dezaten bermatzea.</p>	<p>28.-33. artikulua. 4/2005 Legea.</p> <p>3/2007 Lege Organikoaren 23.-25. artikulua</p>

<p>Gizonak etxeko lanez eta ordaindu gabeko zaintzaz ardura daitezen sustatzea.</p> <p>Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea erraztea, gizonak etxeko lanetan erantzunkide izan daitezen sustatuz. Emakumezko eta gizonetzko langileei bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko eskubideak aintzatestea, familiako erantzukizunak modu orekatuan hartu ditzaten.</p> <p>Erantzunkidetasuna sustatzea eta denbora-erabilerak aldatzea.</p>	<p>33.-45. Art. 4/2005 Legea.</p> <p>3/2007 Lege Organikoaren 14.8 eta 44.1 artikulua.</p> <p>EGBEPE 2022-2025, Zainketei eta denborei buruzko EV2 lerroa</p>
<p>Lan-politika aktiboetan genero-ikuspegia sartzea.</p> <p>Emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna errealia eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatzea, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan.</p> <p>Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzea, enplegu publiko zein pribatuan.</p> <p>Emakume gehiago laneratzea, eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean aurrera egitea.</p>	<p>36. artikulua. 4/2005 Legea.</p> <p>3/2007 Lege Organikoaren 5. Artikulua</p> <p>3/2007 Lege Organikoaren 42.1 artikulua</p>
<p>Emakumeen arteko pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren intzidentzia murriztea.</p>	<p>43 artikulua. 4/2005 Legea</p>
<p>Emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinen arrazoiak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak ikertzea.</p>	<p>51. artikulua. 4/2005 Legea.</p>
<p>Indarkeria matxistaren biktimen orok lehentasunezko arreta, integrala, doakoa eta kalitatezkoa jasotzeko duen eskubidea bermatzea, gaikuntza espezifikoa duten profesionalen eskutik eta indarkeria-egoeraren ondoriozko edo horrekin lotutako beharrei moldatua, diskriminaziorik gabe, edozein delarik ere beren egoera pertsonala, soziala edo administratiboa eta prozedura judizialean duten parte-hartze edo elkarlan-maila. Horretarako, espedienteen kudeaketa integrala eta koordinatua izan dadin zainduko da, erregelamenduz ezarriko diren terminoetan; biktimen baimen informatu aktiboa bermatuko da, eta, aldi berean, behar adinako prozedura-arintasuna, datu pertsonalak tratatzerakoan.</p>	<p>54 artikulua. 4/2005 Legea.</p>

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA
<u>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.</u>
<u>3/2012 Legea, otsailaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzeko dena</u>
<u>Agindua, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena</u>
<u>Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa</u>
<u>7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa</u>
<u>3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.</u>
<u>2019-2022ko IV. Unibertsitate Plan Estrategikoa, unibertsitate-komunitatean genero-berdintasuna sustatzen duena</u>
<u>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.</u>
ESTATUKOA
<u>1978ko Espainiako Konstituzioa</u>
<u>1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, doako laguntza juridikoa arautzen duena</u>
<u>39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, langileen familia-bizitza eta lana uztartzeari buruzkoa</u>
<u>5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO)</u>
<u>1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren kontrako babes-neurri integralei buruzkoa</u>
<u>3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.</u>
<u>4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.</u>
<u>Unibertsitate Ikasketa Ofizialei buruzko Antolamenduaren Errege Dekretua.Ministro Kontseiluarena, 2007ko urriaren 26koa</u>
<u>Genero-indarkeriaren arloko estatu-itunaren neurrien agiri bategina. Kongresua + Senatua. 2019ko maiatzak 13.</u>
<u>135/2021 Errege Dekretua, martxoaren 2koa, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartzen duena.</u>
<u>Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Plan Estrategikoa (2022-2025) (EGBEPE)</u>

EUROPAKOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia 2020-2025

Genero Berdintasunerako Europako Ituna, 2011-2020

2002/73/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko irailaren 23koa, Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua aldatzen duena, enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionali eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Europako Parlamentuaren Ebazpena, emakume gazteek eta neskek hezkuntza-arloan jasaten duten diskriminazioari buruzkoa (2006/2135(INI)).

Rec(2003) 3 gomendioa, emakumeek eta gizonen arlo politikoan eta publikoan erabakiak hartzeko prozesuetan modu orekatuan parte hartzeari buruzkoa eta horren betetze-mailaren segimendua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentaraua, 2006ko uztailaren 5koa, enpleguari eta okupazioari lotutako gaietan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (birmoldatua)

Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko, 2011 (Istanbulko Hitzarmena)

NAZIOARTEKOA

Nazio Batuen Gutuna

Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna

Emakumea diskriminatzeko era guztiak deuseztatzeari buruzko Konbentzioa

Beijing-eko adierazpena eta ekintza-programa

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpena

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzaren testuinguru geografiko, demografiko eta ekonomikoaren adierazleak, 2019-2020 ikasturtea 	Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko eskolatze-tasa, sexuaren eta adinaren arabera, eta irakaskuntza-mailaren (%) arabera. 2019/20 • EAEn eta Europar Batasuneko herrialdeetan gutxienez bigarren mailako ikasketak dituzten 20-24 urteko emakumeak (%). 2010-2019 • EAEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak, titulartasunaren eta sektorearen arabera, ikasketa-mailari eta sexuari jarraikiz. 2019/20 • EAEko irakasleak, lurralde historikoaren arabera • EAEko irakasleak, sexuaren eta mailaren arabera 	Ikasleen estatistika-etaulak Eustat	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen eskola-uzte goiztiarraren tasa, guztira. 	Eustat	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona analfabetoak EAEko 10 urte eta gehiagoko biztanlerian 	Ikasketa-mailari buruzko estatistika-etaulak Eustat	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Espainian unibertsitate-hezkuntzan matrikulatutako ikasleak 	INE	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • «Datos y cifras del sistema universitario español, 20-2021» txostena (unibertsitateko hezkuntzan sartzea sexuaren arabera eta gradu- eta master-ikasketak egiteko emandako beka sexuaren arabera). 	Unibertsitate Ministerioaren unibertsitateko irakaskuntzari buruzko datu estatistikoak	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Beken onuradunak, unibertsitate motaren eta modalitatearen arabera, sexuari eta lurraldeari jarraikiz 	EducaBase	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • 4 urte lehenago graduatu edo master-titulua lortu zutenen jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak, ezagutza-adarraren arabera 	Unibertsitateko tituludunen laneratzeari buruzko inkesta INE	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Administrazioan diharduten langileak, sexuaren arabera, 2022 	Eustaten okupazio- eta langabezia-tasei buruzko estatistikak	Urtean behin

<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren laneratze-estatistikak 	<p>Unibertsitateko ikasleen laneratzeari buruzko datu estatistikoak</p> <p>Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen batez besteko errenta, sexuaren arabera, 2014 	<p>Eustaten pertsonen errenta-mailari buruzko estatistikak</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Biztanleria eta jarduera. (BJA) 	Eustat	Lau hilean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren banaketa, adin-talde soziodemografikoaren arabera. 	Eustat	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Espainian epai irmo bidez zigortutako pertsonak sexuaren arabera, 2016 • Espainian preso dauden herritarrak lurralde-eremuaren eta sexuaren arabera 	INEn estatistikak, pertsona kondenatuak	Urtean behin Hilean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak 2019an EAEn. 	<p>«EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoaren azterketa eta interpretazioa» txostenaren datu estatistikoak</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeak 	<p>Berdintasun Ministerioaren Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren estatistika-ataria</p>	Hilean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Delituzko ekintzen biktimak EAEn 2016an, sexuaren arabera 	<p>Delitu-estatistikak Ertzaintza</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEn zigorra jaso duten pertsonak, sexuaren arabera, 2021ko abendua 	<p>- Espetxe-estatistika</p> <p>Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Familia-bitartekaritzako prozesuetan arreta jaso duten pertsonak 	<p>Familia Bitartekaritzako Zerbitzuko datu estatistikoak 2020ko memoria</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Familia Bitartekaritzako Zerbitzuko bitartekariak 	<p>Familia Bitartekaritzako Zerbitzuko datuak</p> <p>Bitartekarien erregistroa</p>	Iraunkorra
<ul style="list-style-type: none"> • Epai irmo bidez zigortutako adingabeak sexuaren arabera, 2020 	<p>Zigortutako pertsonen buruzko INEn estatistikak, 2020</p>	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Arau-hauste penalak arau-haustearen eta sexuaren arabera, 2017 	<p>Delitu-estatistikak Ertzaintza</p>	Urtean behin

5. ERREFERENTZIA- AGIRIAK

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- BENGOCHEA BARTOLOMÉ M.- 2011 «El lenguaje jurídico no sexista, principio fundamental del lenguaje jurídico modernizado del siglo XXI»
- ESPAINIAKO ABOKATUTZAKO KONTSEILU NAGUSIA La igualdad de género en la Abogacía Española: la evaluación actual de las abogadas y los abogados, 2017
- ESPAINIAKO PROKURADOREEN KONTSEILU NAGUSIA. Urteko memoria - 2020
- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA Karrera judicialaren egiturari buruzko txostena, 2020
- LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA. Urteko memoria - 2020
- BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren memoria (BLZ), 2020
- LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA. ETXEBIZITZA SAILBURUORDETTA. Jarraipen-txostena, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioarena, 2020.
- EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA SAILA.
Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzuaren (ZKEZ) memoria, 2019.
Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) memoria, 2020.
Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren Memoria (familia-arloa), 2018
Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren Memoria (zigor-arloa), 2018
Familia Bitartekaritzako Zerbitzuaren (BJZ) memoria, 2020
Gazte Justiziaren V. Plana (2020-2024)
- EMAKUNDE
Emakumeak eta gizonak Euskadin. Emakunde: 2020.
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politikak Euskal Autonomia Erkidegoan. Emakunde.
Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea (BEGIRA). Urteko jardueratxostena, 2018.
«EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoaren azterketa eta interpretazioa» txostena. 2018ko datu estatistikoak. (2019).

- EUSTAT: Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta, 2020.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FISKALTZA. 2020ko memoria (2019. ekitaldia).
- JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ABOKATUEN ELKARGO NAZIONAL GAIENA. «El letrado de la Administración de Justicia en cifras.Informe 2019» txostena.
- INE. Mujeres y hombres en España, 2021.
- INE. Perstona zigortuei buruzko INEren estatistika, 2020.
- HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA MINISTERIOA. Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema, 2021
- BARNE MINISTERIOA. Gizakien salerosketa eta esplotazioa Espainian. 2016-2020 balantze estatistikoa
- UNIBERTSITATE MINISTERIOA. Unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen estatistika. 2019-2020 ikasturtea
- ELGA. Hezkuntzaren panorama. ELGAko adierazleen Espainiako txostena, 2021
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA. EMAKUMEAK ESPETXERATZEA. ESTÍBALIZ DE MIGUEL CALVO. El castigo penitenciario de la exclusión social y la desigualdad de género, 2014.
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. Emaitzen txostena. Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa, 2017.
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. GIZARTE KONTSEILUA. UPV/EHUren adierazle-sistema gizarteari kontuak emateko, 2020
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA Laneratzea 2020-IV- UPV/EHU Ikasketa ekonomiko-juridikoak, 2020
- VALL I DURAN, CARLA, 2018 (IRIDIA-GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ZENTROA). Txostena: Violència institucional i revictimització en el sistema judicial i de denúncia de violències sexuals

ESKULIBURUAK ETA GIDALIBURUAK

- EMAKUNDE (2009). Erakundearteko II. Akordioa, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko
- EMAKUNDE (2016). Komunikazio eta publizitate ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa Euskadin.

WEB-BALIABIDEAK

- [Justizia.eus](#). Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioaren funtzionamenduari buruz.
- [Themis, Emakume Juristen Elkarte](#)
- [Emakume Epailen Espainiako Elkarte \(AMJE\)](#)
- [Emakume Juristen Espainiako Elkarte](#)
- [Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua](#).
- [Women´s Link Worldwide Genero eta Justizia Behatokia](#)
- [Emakumeen Irudiaren Behatokia. Emakumeen Institutua](#).